

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 19a / 655. zenbakia



OLENTZERO MARRAZKI LEHIAKETA

128 parte-hartzaile
Txatxilipurdik eta Goienak
antolatutako lehiaketa

ORAIN ETA HEMEN: BADATOR OLENTZERO/7 • KIROLA: CESAR PEREZ, KROSEAN AZKARRENA /10

ARGAZKIA: XABIER URZELAI

SANTAMASAK 2003/35-42

Arrasateko
udalbatzak
Santamas jai
zoriontsuak opa
dizkizue
arrasatear guztioi

Zuen zerbitzura



Arrasateko Udala

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Santamas Komisiñuek eta Udalak euki dauen diskuziñue?



GURUTZE PEREZ
Langillie



JUAN LUIS LIZARRALDE
Jubilaue



JUAN LUIS ELIZARAN
Jubilaue



MARIA DOLORES
Jubilaue



IGOR SANTIAGO
Langillie



IGOR LETONA
Langillie

Penagarrixe dala. Oin arte komisiño bat ibilli da hor lanien, eta eurek segidu biherko leukie. Danien dau politikie; pentsetan dot jai-xetako komisiñue be ez litzakela politikue izen biherko.

Ez die ados jarteko kapaz izen, eta hori txarto dau. Komisiñuek urte askuen egin dau lan, eta alkatiek hori kontuen euki biher dau. Mahaixek zabalak ize-ten die, danak kabituteko.

Txarrena da ez diela kapaz izen gauzak konponketa-ko; eta herriko jaixek eta herritarrek urtengo daue galtzen. Bixen partetik txar-to. Gauzak berba egingde konponketan die.

Oin arte Santamas Komisiñue ibilli da, eta ondo egin dau lan. Bixen partetik apur bat emungo baleue, gauzak konpondu egingo litzakez. Izen be, danok alkartute egoteko jaixek die.

Akordio batera aillegau biherko litzakez; erdibidie egon biher da. Azkenien kaltetute urtetan dauena jaixe bera da, baitte herritarrak be. Komeni da herri-kek ze esaten dauen jakittie.

Akaso, alkatiek bere arra-zojek eukiko dittu, baiñe oin arte Santamas Komisiñuek jaixek ondo antolatu badittu, zergaittik aldatu biher daue? Azkenien, jai-kek urtengo dau galtzen.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOAK, ESPALOI GAINEAN Gurpil-aulkian dabilen lagun batek esan digu aspaldian espaloi gainetik ibiltzeko arazo handiak izaten dituela. Eskola Politekniko inguruan bizi da, eta eskola ondoko espaloi gainetan autoak egoten direla salatu du. Arrazoi horregatik, askotan, errepidera jaitsi behar izaten du. Bada, kexu hori aditzera eman gura die gaizki aparkatzen dutenei eta Udalari.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 40

KULTURA / 17

Jaiotza ipiniko dute Garibain

Aurten ere Arrasateko Belenzaleen Elkarteak jaiotza ipiniko du Garibai etorbidean.

Pilota jaialdia, Uarkapen

Santamas egunean pilota jaialdia izango da Uarkapen: Pilotari profesionalak eta pala partidua.

Punta-puntako bertsolariak

Santamas egunean punta-punta bertsolariek jaialdia egingo dute Amaia Udal Antzokian.

ASTEKO DATUA

307

LAGUNEK EGIN ZUTEN EHNA JOAN DEN ASTEBURUAN

Joan den zapatuan, 307 lagunek egin zuten EHNA Monterron kultura etxean. Arrasaten EHNA egiten den bigarren aldia da, eta oso harrera ona izan du. Ilara handiak egon ziren Monterronen.

BESTEKE SANA

“ (Nire bihotzeko begiek) Euskal Herrian borondate eta indar izugarria ikusten dute. Baina, funtsean kale

egiten dugula ere bai. Zeren azken urte hauetako nire lehenasun erabatekoa gure artean ulertzen hastea baita. Adibide ederrena, uste dut Iparraldeak eskaini digula, Batera ekimenarekin. (...) Nahiago dut norbait mintzeko arriskua hartu, sentitzen dudana esateari huts egitea baino. Lizarra-Garazi garaiko salbuespen eder hartatik kanpo, oraindik hemen bakoitza bere sator zuloxoetan gabilta. Bidea da behar duguna. Eta herri osoak batera egiteko, hibe zabala behar du. Zabaltasun hori orain arteko xendrak aintzakotzat hartuz egin beharko da, inongo aurreiritzik ezta bazterketa-rik gabe”

JOSE MANUEL PAGOAGA 'PEIXOTO'
'BERRIA'/03-12-07

ALKATEAREN AGURRA/ Inazio Lakuntza



Kaixo, mondragoetarrok!

Dilin-dalan eta zarra-zarra badator Santamas egune. Gure izateko moduen, kulturaren eta ohituretan, egun berezia da benetan mondragoetarrantzat. Baserritarren jantziak hartu eta gozatu eta parte hartu gure ohiturekin, gure baserritarren eta artisauen lanekin, lagunartien.

Gabonak ate-atien ditugu eta Olentzero be ate joka dabil. Familiarekin bat egin eta batzeko egunak dira, jai giroan ospatzekoak, lasai eta bakean.

Ilusioa eta alaitasuna zabaltzeko izan daitezela!

Ez gauz danok, baña jaietan ondo pasau! Horixe gura dot gure herrian eta gure herritarrantzat.

Ondo-ondo pasau Santamasetan!

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Eioztza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 19
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

ZAPATUA, 20
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

DOMEKA, 21
Ruiz. M. Maala 31 943 79 14 09

ASTELEHENA, 22
Español. Araba etorb. 17. 943 79 18 65

MARTITZENĀ, 23
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

EGUAZTENA, 24
Azkoaga. Iturriotz 943 77 79 99

EGUBAKOITZA, 25
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26

EGUBAKOITZA, 26
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

ABENDUAK 19, EGUBAKOITZA
18:00etan, Hotzmuga taldearen *Rekolore* kale animazioa; 18:00etan, Erakusleio Lehiaketaren sari banaketa; 18:00etan, Herriko Plazan, gaztaina erre festa; 20:00etan, *Luisa Fernanda* zarzuelaren emanaldia Amaia Udal Antzokian.

ABENDUAK 20, ZAPATUA
10:00etan, Santamas Xake Torneo Corazon de Encina elkartean; 11:00etan, Santamas Pilota Txapelketaren finalak Uarkapen; 16:00etan, IV. Boulder Txapelketa Uarkapeko rokodromoan; 19:00etan, *Luisa Fernanda* zarzuela Amaian.

ABENDUAK 21, DOMEKA
17:00etan, Kiki, Moko eta Flash pailazoak Uarkapen; 19:00etan, Santamasetako txerriaren aurkezpena; 20:00etan eta 23:00etan, dantzaldia Luhartz taldearekin Herriko Plazan.

ABENDUAK 22, ASTELEHENA
Goizetik bazkal ordura arte, fruta, barazki, gazta, ganadu eta artisauen azoka eta ume eta helduentzako herri kirolak; 17:30ean, profesional mailako pilota partidua Uarkapen; 20:00etan eta 23:00etan, dantzaldia Herriko Plazan.

AEDren AGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK
2004ko Seaskako eta Debaguneko egutegiak salgai daude AEDko bulegoan. Lehena 3 eurotan eta bigarrena 2,6 eurotan.

BERTSO-SAIOA
Abenduaren 22an, Santamas egunean, AEDk bertso-saioa antolatu du Amaia Udal Antzokian.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Hemen Gaude taldearen zuzia herrian ipini zuten


Hemen Gaude ertzain-kolektiboaren zuzia herrian izan zen. Komisariak zeuden herrietan egin zuten ibilbidean Gipuzkoako lehen geldiuena izan zen. Zuzia Portaloian izan zen, eta 2.000 sinadura batu zituzten bakearen alde eta Joseba Goikoetxea ertzainaren hilketaren aurka.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Basatzia”

Lokatzadia. Baita elur zapaldua eta urtsua.
— *Mekauben, emen jak basatzia oiñetako guztiak kakañtuko jittuau.*
— *Azkenengo edurtian egundoko basatzia ein zan Bergako kaletan.*



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Santamasak zuzenezuzenean 107.7an

Irratiko mikrofonoak kalean izango ditugu Santamas egunean, kaleko giroaren testigantza zuzena izan dezazuen. Abenduaren 22a Espainiako Loteriaren zozketaren eguna ere bada; zozketaren jarraipena egingo dugu eta saritutako zenbakiak zeintzuk diren jakinaraziko dugu. Ibarreko loteria saltzaileak berriemaile lanetan jarriko ditugu. 10:00etatik 13:00etara.
Abenduaren 23an aurtengo zuzeneko azken saioa izango duzue, Gabon usaiak datorrena.

Oporretan ere piztu ezazu irratia!

Abenduaren 24an oporrak hartuko ditugun arren, herriko irratia ez da isilduko! Etxekolanak egin da utzi ditugu, ordenagailua musika gozoenaz hornituta. Horrez gain, 2003ari gainbegiratu egingo diogu. Azken 365 egunetan egingo dako elkarrizketa interesgarrienak batu ditugu.
Urte berriarekin, berrikuntza mordoa ekarriko dizkizuegu. Urtarrilaren 7tik aurrera, apainketa, KZGunea, sorospenak eta ezusteko ugari eramango ditugu uhinetako autobusera.

ARRASATE IRRATIA
FM 107.7

ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA 19
19:10 Planning Prest

ZAPATUA 20
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak

DOMEKA 21
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENA 22
10:00-13:00 Santamas saio berezia

MARTITZENĀ 23
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ABENDUAK 26 - URTARRILAREN 6
10:00 Urteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Arrasateko langile bat hilda, Bergaran

Joan den zapatuan, Aceralia-Bergara lantegiko langileek P. Muñoz langile mondragoetarraren gorpua aurkitu zuten. P. Muñozek zapatu goizean egin zuen lan, seietatik ordu biak arte. Asteko azken txanda zen, eta langileak, autobusean lankide bat falta zela ohartuta, lankidearen bila hasi ziren.

Langile arrasatearrak garabian egiten zuen lan, eta lankideek garabiaren ondoan aurkitu zuten gorpua. Lerro hauek idatzi ditugunerako autopsia egin gabe zegoen; horrenbestez, ezin dugu ziurtatu P. Muñoz lan-istripuz hil zen edo heriotza naturala izan zen.

Auto istripua astelehenean

Astelehen arratsaldean, 13:30ak aldera, auto istripua izan zen Gipuzkoako 627 errepidean, Muxibar baserriaren eta Fagorren artean. E.M.F.-k gidatzen zuen Renault Clio autoa irauli egin zen, eta gidaria auto barruan geratu zen, irten ezinda. Suhiltzaileek atera zuten auto barrutik, eta eskualde ospitalera eraman zuten segidan. Ez zen istripu larria izan; gidariak besoan zeukan min, baina Ertzaintzaren esanetan ez zirudien larria.

Ordenantza fiskalak onartuta

Arrasateko Udalak asteleheneko ezohiko bilkuran onartu zituen 2004rako ordenantza fiskalak. EAJ-EA koalizioak, Aralarrek, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak aldeko botoa eman zuten, eta boto horiei esker onartu zuten ordenantza fiskala. Ezker Batua, berriz, abstenitu egin zen. Udalak ez zuen onartu harakinek eskatzen zuten tasa jaitsiera. Bai onartu zuen, ordea, familia ugariendako aldaketa bat, Ogasun Sailak proposatu zuena. Aldaketa horren arabera, familia ugariak hobariak izango dituzte ondasun higiezinaren gaineko zergan.



Zapatuan 307 lagunek egin zuten EHNA

Joan den zapatuan, 307 lagunek egin zuten EHNA Monterron kultura etxean. 10:00etatik 13:00etara Bai Euskal Herriari! ekimeneko lagunek agiriak egiteko datuak hartu zituzten Monterronen. Interesatuak ilara handiak egin zituzten agiri hori eskuratu ahal izateko.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Gabonak zelan ospatu

Gabonak hastear daude eta Saddam Hussein atxilotu egin dute.

Elurra egitea besterik ez da falta, AEBetako film baten bukaera polita egiteko... Hala gurako lukete behintzat Bushek eta Aznarrek, besteak beste. Egia esanda, Irakeko diktadorea atxilotu izana izugarritzko mesedea izan da AEBetako sasi-agintariendako. Oraindik argitzear

dauden hauteskundeetan eskuratu zuen AEBetako gobernuko agintea. Amerikarrek Iraken Vietnamen bizi izan zutenaren *deja-vú*-a izan dute eta horren ondorioz, beldurtuta eta haserre, Bushi eman zioten *babesa* gainbeheran joan da.

Batzuk, arrazoi osoarekin, poztuko dira Hussein atxilotu dutelako. Izan ere, lagun askori min handia egin

zien, ez dago hori ukatzerik. Beste kontu bat da halako minak egin zituenean AEBetako lagun-mina ere bazela, eta horiek ere axolagabeki lagundu zutela.

Hussein-en atxiloketa ezinbesteko propaganda moduan erabiliko dute, baina ez dut uste irakiarrek okupatzaileei eraso egiteari utziko diotenik. Ez dut uste Husseinengatik borrokatzen dutenik. Eta aurten ere irakiarrek ezingo dituzte Gabonak bakean ospatu.

ASTEKOIRUDIA




UBANE MADERA

POLIKI-POLIKI ERAIKIN ZAHARREK BERRIEI LEKUA UZTEN DIHARDUTE

Orain dela gutxi, Gelma pareko biribilgunean aspaldiko eraikina bota dute. Iraganean, eraikin hartan autoak konpontzeko tailerra zegoen. Horren ostean, tindategia ipini zuten. Azken negozio horrek urteak egin zituen, eta orain dela hiruzpalau urte itxi egin zuten. Eraikinak berak ez dauka halako

garrantzirik, ez behintzat beste batzuk baino handiagoa. Azpimarratzekoa da azken urteotan Arrasate beste itxura bat hartzen ari dela. Onagoa edo txarragoa, norberak esango du. Eraikin zaharrak botatzen ari dira, etxe berriak egiteko. Ez dago gaizki, baina ondarea ere kontuan hartu behar da. //B.

PUB
HAIZEA



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ad Ihabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

JAIKAK/ Udalak eta Santamas Komisiñuek ika-mikak izan zituzten azkeneko batzarrean

Santamas Komisiñuek bertan behera utzi du aurtengo Santamas jaien antolakuntza

GONTZAL LANDA

1976a ezkerko Santamas Komisiñue arduratu da Santamas jaiak prestatzeaz. Udal ordezkari berriek eta Komisiñuek ika-mikak izan dituzte, eta ondorioz, Santamas Komisiñuek antolatutako ekitaldi guztiak bertan behera utzi ditu. Udalak hartu du ardura.

Herriko hainbat taldek osatzen dute Santamas Komisiñue. Base-rritarren jai antolatzeke arduratu hartu du azken 27 urteotan, inolako irabazi asmo barik. Lan horretan Udalaren laguntza ezinbestekoa izan denez eta Udalak berak hainbat ekitaldi antolatu dituenaz, Udala jaien laguntzailer garrantzitsua izan da. Hasiera-hasieratik batzorde horren helburua izan da jaiak sustraitzea eta indartzea. Santamas jaietan kanpoko nahiz herriko makina bat lagunek hartzen dute parte.

ANTOLAKETAREN GAINEKO IKA-MIKA

Aurten, ordea, Udalaren eta Santamas Komisiñuen arteko harremanak garrantzitu egin dira. Izan ere, azaroaren 10ean bi aldeek batzarra egin zuten, eta ez zen inolako arazorik egon. Ildo horretan, Komisiñuek batzarraren balorazio positiboa egin zuten, nahiz eta bileran antolaketaren gaineko hainbat gai ez jorratu. Hala, bazi-rudien Udal talde berriak betiko irizpideei eutsiko ziela, eta, beraz, Komisiñuek beste behin izango zuela jaiak antolatzeke ardura.

Baina azaroaren 27an Udalak eta batzordeak beste bilera bat egin zuten. Udaleko ordezkariak honako hau eman zuten aditzera: alkatea izango zela jai egitarauko agurra idatzi eta sinatuko zuena, Komisiñuen orde. Eta Komisiñoko ordezkariak ez zuten baldintza hori onartu.

Martitzenean, Santamas Komisiñoko kideek prentsurrekoa egin zuten, egoeraren berri emateko. Adierazi zuten, Udalak hartutako erabakiarekin "minduta eta haserre" daude. Batzordeko ordezkari Nagore Iraolak azaldu zuenez, Komisiñuek urteak daramatza jaiak antolatzen eta egitaraua sinatzen. Horregatik, "Komisiñuen sinadurak balio historikoa dauka". Era berean, batzordekideak adierazi zuten aurreko alkateek ez zutela Santamasetako gutuna idatzi, ezta sinatu ere. "Hori Komisiñuen lana izan da". Ildo horretan, alkateek San Juanetako agurra idatzi eta sinatu dute, baina ez Santamasetakoa. Horregatik guztiagatik batzordekideek honako hau salatu zuten: "Alkateak protagonismoa lortu gura du".

Inazio Lakuntza alkateak prentsurrekoa egin zuen bihar-munean, Kultura Saileko zine-



Santamas Komisiñuek prentsurrekoa egin zuen udaletxeke arkupeetan, Udalarekin izandako ika-mikak eta hartu duten erabakia azaltzeko.

GORKA MORRÁS

Alkateak jai egitaraua sinatu gura zuten, baina Komisiñuek ez du onartu gura izan

gotzi Ines Aldai alboan zuela. Alkateak esan zuen Udala "minduta" zegoela, eta udalak direla herrietako jai guztiez arduratzen

Azken 27 urteotan Komisiñuek antolatu ditu jaiak, baina egitaraua sinatu ere

direnak. Berez, "Udalari dagokio Santamas jaiak antolatzea", alkatearen hitzetan. Dena den, onartu zuen Santamas Komisiñuek

Udalak berak hartu du aurtengo Santamas jaietako egitaraua antolatzeke ardura

azken urteotan egindako lana "handia eta polita" izan dela. Lakuntzak adierazi zuen Komisiñuek ez zuela onartu programan

Udalaren eta Santamas Komisiñuen idatziak tartekatzea. Komisiñuek antolaketan parte hartzeke aukera izan arren, baztertu egin zuten. Beraz, Udala arduratuko da Santamas jaietako ekitaldiak antolatzeaz. Hala ere, Udalak ezin izango ditu antolatu aurreko urteotako ekintza guztiak. Besteak beste, ekitaldi hauek kale egingo dute: herri bazkaria, Herriko Plazako txotx jaialdia, Suelto Txapelketa eta hegazti harraparien erakusketa, hain zuzen ere.

PRENTSURREKOA KALEAN

Komisiñoko kideek udaletxeke arkupeetan egin behar izan zuten martitzeneko prentsurrekoa. Astebete lehenago prentsurrekoa Udaleko osoko bilkuren aretoan egiteke eskatu zioten Udalari, eta orduan baiezkotako jaso zuten. Prentsurrekoaren egunean, ordea, Udalak esan zuten ez zela posible, osoko bilkuren aretoa okupatuta egongo zelako. Horregatik, Santamas Komisiñuek prentsurrekoa kalean, Udaletxeko arkupeetan, eskaini behar izan zuten.

Santamas Komisiñoko kideek aurtengo jai ekitaldien gainean adierazi zuten, "agian kanpotik ikusita, itxuraz jaiak betikoak izango dira, baina barrutik, herri giroa kontutan izanda, ez dira betikoak izango; giroan igarriko delakoan gaude". Ikustear dago aurtengoak zer nolako jaiak izango diren eta partehartzea zein izango den!

Egitarauan hutsune batzuk izango dira

Udalak bere gain hartu du Santamas jaiak antolatzea, baina Udaleko ordezkariak aditzera eman dute hainbat ekitaldi ez direla antolatuko. Esaterako, aurten ez da izango txotx jaialdirik. Azken urteotan ekitaldi horrek lagun ugari batu ditu udaletxeke aterpean ipinitako kupelen inguruan. Izan ere, taloa, txistorra eta sagardoa dastatzeko aukera paregabea eskaini izan du.

Halaber, aurten, Udalak ez du hegazti harraparien erakustaldirik antolatuko. Erakustaldi horrek geroago eta lagun gehiagoren arreta piztu du. Izan ere, arranoen, zapelaten eta bestelako harraparien hegaldiez gozatzeko aukera eskaini izan du urteotan.

Beste hutsune garrantzitsuetako bat izango da herri bazkaria. Bazkarira joateko txartelak berehala amaitzen dira eta iaz, esaterako, berehala agortu ziren

txartelak. Horrez gain, dantzazaleek ziurrenik urteroko Dantza Suelto Txapelketaren falta igarriko dute.

Hala ere, urteroko fruta eta barazki azoka erraldoiak eta ganadu feriak ez dute kale egingo. Seber Altube, Garibai etorbidea eta Laubide plaza horren lekuko izango dira. Ziur aurten ere gunehoriek jendez lepo beteko direla. Artisauak eta herri kirolariak ere izango dira, euren gaitasunak erakusten. 34 artisauk Jokin Zaitegi plazan euren langintzak erakutsiko dituzte. Horrez gain, Zaldibar pilotalekuan punta-puntako aizkolariek eta harrijasotzaileek erakustaldia egingo dute. Horrekin batera, AEDk antolatuta, maila handiko bertsolariak saioa eskainiko dute. Hain zuzen ere, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Amets Arzallus eta Enaitz Alustiza Amaia Udal Antzokian kantuan ibiliko dira.

GABONAK / BADATOR OLENTZERO

Dagoeneko Arrasatera bidean da gure Olentzero

UBANE MADERA

Zintzo-zintzo eta umekin egoteko irrikan, Olentzero Arrasaterako bidean da. Urtero moduan, gutuna bidali du badatorrela esateko. Eta, esan digu, besteak beste, Arrasateko umek eskatutako opariak gertu dituela.

Menditik Arrasatera jaitsi baino lehen, bide erdian Olentzerok zain izango ditu Arrasateko bi lagunak: Txoronpio eta Txoronpia. Eta hirurak batera etorriko dira herrira. Baina Olentzero ez da ilunkerara arte azalduko. Lehenago, Txoronpiok eta Txoronpiak lan egin beharko dute; umek Olentzerori idatzitako gutunak batu beharko dituzte. Hortaz, adi ibili, gaztetxook, 12:00etarako gertu izan beharko dituzue eta zeuen eskaerak. Orduantxe hasiko dira Txoronpio eta Txoronpia gutunak batzen Udala plazan. Handik Uribe auzoko plazaxora joko dute; gero San Andresera, Udalaitz Dorre pareko zabuetara. Atsedean hartu barik, Musakolaraino joango dira, hango zabuetara. Eta ibilbidearekin bukatzeko, Santa Teresa eta Altamira auzoak bisitatuko dituzte. 13:30ean Portaloira iritsiko dira.

BASERRITAR JANTZITA ETA KANTUAN

Eta, lehen esandako moduan, ilunkeran azalduko da gure Olentzero, opariak banatu baino lehen



18:00etatik 19:30ak arte ibiliko da Olentzero kalez kale.

Arrasateko umekin egoteko. Eskaera berezia egin gura die ikazkinak berarengana joango direnei: baserritar jantzita irteko kalera, eta berarekin batera ibiltzeko kalez kale kantuan. Honako ibilbidea egingo du Olentzerok: Zaldibartik irten eta Portaloira joango da; gero Otalora eta Zarugalde kaleak bisitatuko ditu, Udala plazara bidean. Handik

San Andresera egingo du eta horren ondoren Garibain zehar berriro Portaloitik pasatuko da, Herriko Plazaraino. Han bukatuko du ibilaldia, 19:00ak aldera; Olentzerori agur esateko garaia da hori. Mutil dantza eta Herri dantza eskainiko dizkiote han.

Eta, jakina, gauaren iluntasunak lagunduta isil-isilik opariak banatuko ditu etxez etxe.



Abenduaren 20tik urtarrilaren 7ra arte egongo da jaiotza Laubiden.

Bihar inauguratuko dute jaiotza Laubideko lorategian

U.M.

Bihar, zapatua, ilunkera aldean inauguratuko dute Arrasateko Belenzaleen Elkartek antolatutako jaiotza. Iaz bezala, Laubiden egongo da, hango lorategian. Errege egunaren ostera arte ikusi ahal izango da.

Hirugarren urtez, jaiotza ipiniko dute Arrasaten. Hain justu ere, atzo eta gaur ibili ziren muntatze lanak egiten eta bihar (zapatua) ilunkeran inauguratuko dute. Pieza kopuru aldetik eta iazkoaren antzerakoa izango da, baina izango du berritasunik. Esaterako, irudien buruak berriak izango dira. Antolatzaileetako batek, Joa-

kin Etxeberriak, kontatu digunez, iazkoak baino material gogorragoarekin egin dituzte; gehienbat, jendeak apur ez ditzan. Gaineratu digu Arrasateko Belenzaleen Elkartearen asmoa dela urtero jaiotzarako pieza berriak egitea, baina, jakina, hori diruaren arabera egingo dute. Hala, aurtengo jaiotzarako dirua batzen dabilta orain. Besteak beste, bi kontu korrante zabaldu dituzte: Euskadiko Kutxan (3035 0202 7 1 202.1.02246.7) eta Kutxan (2101 0123 98 01 23 93 67 91). Aurrez eskerrak eman gura diete laguntza emango dutenei.

Era berean, iazkoa ikusita, jendeak jaiotza errespetatzea eskatu dute.

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
 ITURRIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Ondo pasatu Santamas jaiak!



ZABALA oinetakoak

55 urtean elkarrekin ibili gara Ospa ditzagun Santamasak

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27

Zubizaneta



GALERIA 44

Denda berezia

Ondo pasatu Santamasak eta Gabonak

ELKARRIZKETA

UNAI ROMANO/TORTURAREN AURKAKO TALDEKO (TAT) KIDEA

“Beldurra gelditu zait barru-barruan, eta bi ebakuntza egin dizkidate buruan”

UBANE MADERA

Orain dela pare bat urte izan genuen Unai Romano 25 urteko gasteiztarren berri. Poliziatetik pasatu eta gero, torturak salatu zituen. Hura probatzeko argazki beldurgarri bat erakutsi zuen komunikabideetan-eta. Joan den astean, Arrasaten hitzaldia egin zuen, gertatutakoa kontatzeko; geuk hitzordua egin genuen berarekin.

Zelan izan zen?

2001eko irailaren 6an gurasoen etxean nengoen. Zarata bat entzun eta jaiki egin nintzen. Gurasoak guardia zibilekin eztabaidan zebiltzan. Agertu nintzeanean ea Unai nintzen galdetu zidaten eta gero, atxilotuta nengoela jakinarazi zidaten, ETARI laguntzearen akusaziopean.

Gasteizko kuartel batera eramanez ninduten; handik Madrilerara; eta Madrilen beste kuartel batera. Han hasi ziren galdeketak eta kolpeak: galderak, kolpeak buruan, berriro galderak, kolpeak buruan...

Lehenengo egunean, 19:00etan, auzitegi-medikuak ikusi ninduen. Medikuari esan nion kolpatu egin nindutela, baina hark esan zidan ez neukala mar-

ka nabarmenik, eta ez zela ezer igartzen.

Galdeketek segitu egin zuten. Jarri zidaten poltsa buruan, lepoan estutu zidaten, elektrodoak jarri zizkidaten, ama torturatzen zebiltzala hil egin zitzaiela esan zidaten... Hala gau osoan. Gero ziegara eraman ninduten. Hurrengo eguneko goiza zen. Ordu eta erdiz-edo egon nintzen ziegan eta hasi zitzaidan burua puzten. Guztiz puztuta neukan, sekulako mina, erre egiten zidan buruak... Erabaki nuen handik atera behar nuela. Horretarako, neure burua zauritzea erabaki nuen. Eta eskumuturrak hozkatu nituen. Auzitegi-medikuarengana eraman ninduten; 10:00ak ziren. Aurpegia guztiz handituta neukala joan nintzen medikuarengana. Begiak horren handituta nituen ezen ez nuela ezer ikusten, itsu nengoen. Eta eskumuturren egoera oso eskasa zen. Berehala eramanez ninduten ospitalera. Han probak egin zizkidaten, eta kartzelara sartu nindutenean, atera zidaten argazkia. Sei hilabete egin nituen preso, eta fidantzapean askatu ninduten. Kolpeek buruan zauria eragin zidaten eta horren zarakarra (kostra) lau hilabete-ra jausi zen.

Baina kartzelara sartu aurretik Ruiz Polanco epaile-



GORIKA MORRAS

aren aurrean deklaratu behar izan zenuen, ezta?

Nik deklaratzeko, epaitegiko solairua hustu egin zuten ni inork ez ikusteko. Egindako galderak erantzun nizkion epaileari eta torturena kontatu nioenean esan zidan ez ninduela sinesten; 20

urte zeramatzatela Guardia Zibilarekin lanean eta ez ninduela sinesten. Epaitegiren batean salaketa egiteko. Han bertan salatu nuen, eta epaileak tramitatu egin zuen salaketa.

Zein egoeratan dago orain salaketa?

Aurrera doa, bidean dabil. Guardia Zibilak kasua artxibatzeari nahi du, baina txosten medikuak, argazkia... Frogak daude.

Eta zu zeu zelan zaude gaur egun?

Esango nuke orokorrean beldurrez nagoela. Beldurra gelditu zait barru-barruan. Horrez gainera, entzumena galdu dut ezkerreko belarrarian eta bi ebakuntza jasan behar izan ditut buruko zauria konpontzeko.

Egia esan, dagoeneko bi urte pasatu dira eta hobeto nago, baina beldurra barru-barruan geratu zait.

Behin eta berriro publiko-ki salatu izan duzu zuri gertatutakoa. Zein erantzun izan duzu, orain arte?

Legebiltzarrean izan nintzen, TATEko (Torturaren Aurkako Taldea) kideekin batera. Elkarrizketa izan genuen zenbait alderdi politikorekin. Eta, haiek (EAJk, EAK, EBk eta Batasunak) elkartasuna eman zidaten, argazkia zegoenez... Baina gertatutakoa onartu zuten niri egindakoa erakusten duen argazkia zegoelako bakarrik.


Zerbait gehiago esan nahi baduzu...

Guztiok egin behar dugulana, torturearekin eta halakoekin bukatzeko.

Jai zorientsuak opa dizkizuegu!


ONANDIAGoxotegia
Dastalekua
Izozkitegia

Iturriotz 11. Tel.: 943 79 12 31

**MARGA**
jantzi denda
*Ondo pasatu
Gabon jaiak!*Iturriotz 21 • ARRASATE
Tel.: 943 71 17 40San Pedro 20 • BERGARA
Tel.: 943 76 05 37**N & N sol**Gabon
zorientsuak!


Solarium eta Estetika Zentrua

Ferrerias kalea 28-behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 64 57



SARA

MERENDERUE



EUSKAL HERRIAREN ALDE LANEAN ETA SUFRITZEN ARI
DIRENEI LAZTAN HANDI BAT ETA URTEAN ZEHAR GURE
ARTEAN IZAN DIRENEI ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

Tel.: 943 77 15 86 • ARRASATE



Hemen
GARBIKETAK

***Garbiketetan
profesionalak
gara***

943 71 48 45

607 94 89 84

www.hemen-garbiketak.com

Gora Santamasak!



OLAIA MONDRAGON

Lasterkariak gogotik eskertu zuten helmugaratzerakoan herritarrek eskainitako txalo zaparrada.

ATLETISMOA

Cesar Perez izan zen Koadrila Arteko Santamas Krosean azkarrena

Koadrila azkarrenarendako saria, bildots bat, Los Caracoles taldearendako izan zen

XABIER URZELAI

Domekan eguraldiak lagundu ez bazuen ere, korrikalari askok hartu zuten esku Koadrila Arteko Santamas Krosean. Mondragoetar asko izan ziren parte-hartzaileei animatzen, eta lasterkariak asko eskertu zuten hori. Cesar Perezek sekulako sasoiari dagoela erakutsita irabazi zuen.

Lasterketa azkarra izan zen. Lehenengo postuan helmugaratu zen Cesar Perezek hogeita minutu baino gutxiago behar izan zituen ibilbideko sei kilometroak egiteko: 19 minutu eta 37 segundo, hain zuzen. Zuhaitz Ezpeleta helmugaratu zen

bigarrena, lehena baino 16 segundo geroago. Ez zen gustura geratu Bedoñako lasterkaria. Hirugarrena beste atleta ezagun bat: Jon Aperribai; eta laugarren postuan etorkizunean askotan entzungo dugun izen bat: Markel Blanco. 14 urteko lasterkari gaztea joan den urtean ere laugarrena izan zen. Aurten ondo baino hobeto dabil, eta bide onetik jarraitzen badu, Arrasatek etorkizunean punta-puntako lasterkaria izango du.

Emakumeek ere maila polita erakutsi zuten: Mari Fran Alonso izan zen azkarrena, Marije Velasco bigarrena eta Mari Carmen Garcia hirugarrena. Koadrila azkarrenarendako saria,

berriz, Los Caracoles taldearendako izan zen.

GAZTETXOEN LASTERKETAK

Nagusien krosa jokatu aurretik gaztetxoek lasterketak izan ziren. 13-14 urte bitartekoek lasterketan Iñigo Altzola izan zen azkarrena. 11-12 urte bitartekoek lasterketan Mikel Alberdi eta Oihane Urtzelai izan ziren onenak. 10 urteko lasterkarien artean, Iñigo Uribarren eta Maialen Axpe helmugaratu ziren aurrenak. 9 urtekoen artean, Ander Garai eta Eider Ros; 8 urtekoen artean, Mikel Ugarte eta Malen Ruiz de Azua; eta, azkenik, 7 urtekoen artean, Jon Aranburu eta Uxue Okina izan ziren azkarrenak.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - AT Celaya	4-3
You Know - Saukelu Scream	6-3
Billy & The... - Aloña Taberna	5-13
Iriztu Taberna - KPPC	4-0
Alpargat-Estutu - Abocajarro	1-4
Bikain Akademia - AT Celaya	3-7

B MULTZOA

AC Surcos - Errasti Kristaldegia	8-5
Dream Team - Whiskeria	12-2
Etixerat - Tomahawk	6-3
Goma-2 - Speed Boys	3-1
Fuxion - Lasagabaster	5-5
El Ekipo A - Dribling	6-14
AC Surcos - Etixerat	3-4

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Rayo Aldeano	10	6
2. Iriztu Taberna	10	6
3. Aloña Taberna	8	6
4. Abocajarro	8	6
5. You Know	8	6
6. AT Celaya	7	6
7. Alpargat - Estutu	7	5
8. Betrayer	6	5
9. Saukelu Scream	6	5
10. Bikain Akademia	2	5
11. Billy & The Cowboys	0	5
12. KPPC	0	5

B MULTZOA

	P	J
1. Etixerat	10	6
2. Dribling	10	6
3. AC Surcos	10	6
4. Goma-2	9	6
5. Lasagabaster	8	6
6. Dream Team	7	6
7. Tomahawk	5	6
8. Errasti Kristaldegia	4	6
9. Speed Boys	4	6
10. Fuxion	3	6
11. El Ekipo A	2	6
12. Whiskeria	0	6



KIROLAGENDA

EMAITZAK

KOADRILA ARTEKO 26. SANTAMAS KROSA, ENRIKE KABIKETA MEMORIALA.

GIZONEZKOAK

1.- Cesar Perez	19:37
2.- Zuhaitz Ezpeleta	19:53
3.- Jon Aperribai	20:44
4.- Markel Blanco	21:09
5.- Manu Anguas	21:18
6.- Jose Luis Sarobe	21:25
7.- Iban Silbar	21:30
8.- Jose Antonio Otxoa	21:31
9.- Florian Garcia	21:33
10.- Luis Maiza	21:34
11.- Florencio Diaz	21:34

EMAKUMEZKOAK

1.- Mari Fran Alonso	25:34
2.- Marije Velasco	25:51

3.- Mari Carmen Garcia 26:12

4.- Yolanda Perez 31:07

KOADRILAKA

1.- Los Caracoles	34 puntu.
2.- Azken Pote	63 puntu.
3.- Polinni	86 puntu.
4.- Galapagos	102 puntu.
5.- Zuloak	162 puntu.

ERRUGBIA

Seniorrak: Getxo C - Arrasate	3-41
Kadeteak: Hernani - Arrasate	51-10

FUTBOLA

Preferentea: Mondra - Urola	3-1
Neskak: Mondra - Eibar	2-5

SASKIBALOAIA

Seniorrak: Ointxe Arrasate - Jarrilleros	96-77
--	-------

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA



Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10.35



gelatzu s.l.

Gabon zoriontsuak!



Zubillaga auzoa 1 • Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51 • E-maila: gelatzu@intermail.es • OÑATI



Zenbaki

AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es

Bihar jokatuko dute Santamasetako IV. Boulder Txapelketa Uarkapen

XABIER URZELAI


Bihar, zapatua, jokatuko da Santamasetako Boulder Txapelketa. Aurten txapelketa lau urte egingo ditu, eta urtetik urtera txapelketa jendetsuagoa da. Giro polita izaten da Uarkapeko boulderrean; eta txapelketan gero eta lehia handiagoa izaten da.

Aspaldian koadrila polita dabil Uarkapeko boulderrean eskalatzeko, eta badirudi horietako asko animatzen badira, aurtengo txapelketa bestetan baino jendetsuagoa izango dela. Horrez gain, kanpoko hainbat eskalatzailerriko dira; hortaz, badirudi txapelketan lehia handia izango dela. Urtetik urtera parte-hartzeak gora egin du, eta azken urteotan neskak ere animatu dira txapelketan esku hartzera.

SAILKAPEN SAIOAK

Txapelketako finala 18:00etan hasiko bada ere, final horretara sailkatzeko saioak 16:00etan hasiko dira. Antolatzaileek hainbat ibilbide ezarriko dituzte; horietako batzuk maila handikoak. Ezarritako ibilbideak gaintzen dituztenek aurrera egingo dute txapelketan, finalera heldu arte.

Txapelketan hiru maila izango dira: gazteak, helduak eta neskak. Txapelketan maila oneko eskalatzailerriko parte hartzen dutenez, eskalatzeari atsegin duten hainbat mondrogoetarrek maila ertaina duten eskalatzailerriko beste kategoria bat egiteko proposamena egin dute. Antolatzaile-



Gero eta neska gehiagok hartzen dute esku Boulder Txapelketan.

leen esanetan, baina, horrek ez dauka zentzu handirik; izan ere, sariak ez dira txapelketa irabazten duten eskalatzailerriko bakarrik; sari asko dituzte eta banatzeko.

Baliteke, baina, erdi bideko kategoria gehituz gero, normalean ikusle moduan egoten diren herriko eskalatzailerriko asko txapelketan parte hartzera animatzea; lehia polita egongo litzateke.

Txapelketan izena emateko eguna bihar bertan izango da, sailkapen saioak hasi baino ordu erdi lehenago: 15:30ean, hain zuzen. Joan den urtean Markel Mendieta eta Olatz Altzua mondrogoetarrek izan ziren txapelketan onenak. Ikusi egin behar da aurten ere txapelketa euren izango ote den, edo besteren bat ere boulderrean jo eta ke ibili den.

FOTOKIROLA



AUKEAko kuota %10 garestituko dira

Datorren urtean, AUKEAko kuota ordaintzeko abonatuak bestetan baino gehiago ordaindu beharko dute, aurtengo igoera beste urte batzuetakoa baino handiagoa izango da-eta; %10 garestituko da, hain justu. Azken urteotan %4ko igoera izan du.


MENDIKO ESKI IRTEERA

Besaide Mendi Elkartekoak Panticosara joango dira asteburuan mendiko eskia egitera

Besaide Mendi Elkartekoek mendiko eski denboraldia estreinatuko dute oraingo asteburuan, Panticosara joango dira-eta bihar, goizean goiz. Lehenengo irteera hau, baina, mendiko eskia ondo egiten ez dakiten eskialtzailerriko da, hastapen ikastaroa egingo dute-eta. Hurrengo irteera, berriz, urtarrilaren 24ko eta 25eko asteburuan egingo dute. Orduan, Aragoiko Pirinioetan dagoen Tena bailarara joango dira. Irteera horiez gain, Besaidekoek eskaintza zabaldua daukate, mendiko eski denboraldia maiztean amaituko dute-eta. Informazio zabalagoa goiena.net-en.

Hika
OSAGARRIAK

Juan Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.. 943 79 98 06



BEREYA

elektrizitatea



- ALARMAK. TB. SATELITEAK
- ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
- TB ZERBITZU TEKNIKOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- SOINU INSTALAZIOAK
- KONPONKETA OROKORREAN
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK

Erdiko kale 50 behea - ARRASATE - Tel.: 943 79 13 79 / 670 08 34 10 Faxa: 943 77 15 34

www.LASAGABASTER.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA

JANTZIDENDA

ETXEAN NAHI DITUUGU!



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA




JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR




ENRIKE LETONA




ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA




GAIZKA AZKARATE



IGOR LETONA



SAIOA ALZUA



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz

HARREMAN-EN ESKUTIK ELKARTASUN OPARIAK

Harremangobarnuz kanpoko erakundeak erakusketa antolatu du, eta abenduaren 24ra arte egongo da erakusketa hori zabalik. Bertan, Hirugarren Munduko produktuak eros daitezke. Erakusketa edo denda horren helburua da garatzeko bidean dauden lurraldeetako produktuen salmentari bide egitea; aberastasun iturri izango diren enpresak eta lanpostuak sortzeko eta bizimodu duina izateko.



MESEDEETAKO ANDRA MARI IKASTOLAKOAK KURSAALEAN

Ikastolek Gipuzkoa mailan antolatutako Christmas Marrazki Lehiaketako sariak Kurasaalean banatu zituzten. Mesedeetako Andra Mariko Julen Alberdik, Ana Ruizek eta Laura Novalek saria eskuratu zuten. Horrez gain, ikastola horretako koroak eta dantza taldeak Kurasaalean izan zen ikuskizunean esku hartu zuten. Eskuin aldeko bi argazkietan azaltzen direnak koro taldeko eta dantza taldeko gaztetxoak dira.



euya

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

Ondo pasatu
Santamasak

etxetresna elektrikoak

estilo guztietako lanparak zure esku

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



ARPE

Ile apaindegirako
artikuluak

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

arbolapeta




ESKORIATZA

Tfno 714345



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA



SUKALDARITZA IKASTAROA EGIN ETA GERO, ARGIÑANO ETA ARZAK ATZEAN UTZIKO LITUZKETE

Ekin emakume elkarteak antolatuta, sukaldaritza ikastaroa egin berri dute ibarreko hainbat lagunek. Guztiak argazkian azaltzen ez badira ere, hamalau lagun izan dira sukaldean nola moldatu ikasten. Igor Otadui izan dute irakasle, eta irakasle

ona behar du; ikasleak punta-puntako *chef* bilakatu dira-eta. Ikastaroko azken egunean, agur afari ederra egin zuten. Ikasleak gustura ibili dira, eta ia guztia ikasi badute ere, beste ikastaro bat eginez gero, duda gabe emango dute izena.



LUISA FERNANDA ZARZUELAREN ESTREINALDIAN MONDRAGOETARREK ERANTZUN ONA

Joan den asteburuan estreinatu zuten *Luisa Fernanda* zarzuela Amaia Antzokian, eta jende asko izan zen zapatuko eta domekako emanaldiaz gozaten. Bi emanaldiak hasi moduan amaitu zituzten:

publikoaren txalo artean. Herritarrek gustura ikusi zuten Federico Moreno Torrobak idatzi eta Alfredo Gonzalez Chirlake bergararrak zuzentzen duen obra. Oraingo asteburuan ere emanaldi bi egingo dituzte.



TXALAPARTA ELKARTEAK 25. URTEURRENA OSPATU ZUEN

Joan den asteburuan Txalaparta elkarte gastronomikoak 25 urte egin zituen. Urteurrena behar den moduan ospatu zuten: egubakoitzean, 25 urte horien erreposoa egiten duen liburua argitaratu zuten; Arrasate Musikaleko Big-Band taldeak kontzertu emanaldia egin zuen; Goikobaluko Ochote taldea izan zen abesten eta luntxa ere izan zuten. Zapatuan, meza eta gero, txikiteoan egin zuten gaitariekina batera. Ondoren, bazkari ederra egin zuten elkartearen.

BERTSOLARITZA/AEDk bertso jaialdia antolatu du Santamas egunean

Astelehenean punta-puntako bertsolariak saioa egingo dute Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

AEDk bertso jaialdia antolatu du Santamasetan. Astelehenean, abenduaren 22an, punta-puntako bost bertsolariak jaialdia egingo dute Amaia Udal Antzokian. 20:00etan hasiko da saioa eta txartela sei euro kostatuko da. Txartelak AEDn eskura daitezke.

AEDk bertso saioak antolatzen ditu Santamasetan, urtero. Horien artean, askotan, Amaia Udal Antzokian bertso jaialdiak antolatu izan ditu. Horrez gain, urte batzuetan *Balkoitik Balkoira* ekimena ere egin izan du: bertsolariak kalean, bata besteari kantuan, hain zuzen ere.

Aurten punta-puntako bost bertsolari eramango dituzte Amaia Udal Antzokira eta han jaialdia egingo dute. Santamas egunean izango da, abenduaren 22an. Esan bezala bost bertsolari lehiatuko dira, 20:00etan, eta gal jartzailea Lierni Altuna aramaiarra izango da. Lierni AEDko Bertso Eskolako kidea da.

GIPUZKOAKO TXAPELKETAKOAK

Ezagun da Arrasaten bertsolari-tzarekiko zaletasun handia dagoela. Arrazoi horregatik, bertsolaritza ekitaldiak egoten diren bakoitzean oso harrera ona izaten dute. AEDk arrasatearrei jaialdi berezia eskaini gura die, eta horretarako bertsolari oneneta-

rikoak ekarri ditu. Aitor Mendiluze andoaindarrak eta Maialen Lujanbio hernaniarrak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean hartu dute parte. Irunen egindako finalean Maialen Lujanbiok merezitako txapela jantzi zuen. Aitor Mendiluzek, ostera, hirugarren postua lortu zuen.

Andoni Egaña zarauztarra egungo bertsolarien artean ospetsuenetakoa da, eta antzoki zein areto guztiak ikuslez betetzen ditu. Gaur egun Egaña ez du parekorik. Horiez gain, beste bi gazte ere ibiliko dira bertsoan: Amets Arzallus hendaiarra eta Enaitz Alustiza bergararra. Azken hori, Alustiza, AEDko Bertso eskolako kidea da.

TXARTELAK, AURRETIK ETA AMAIAN

Ziurrenik jaialdiak ordu eta erdi inguru iraungo du. Txartel bakoitza sei euro kostatuko da. Txartelak AEDn eskuratu ahal izango dira. Horrez gain, astelehenean, abenduaren 22an, jaialdia hasi baino ordu bat lehenago, txartel-

degia zabalduko dute. Jaialdirako txartelak lortzeko ez da arazorik egongo. Ea arrasatearrek zelan erantzuten duten!

URTEURRENEKO BALORAZIOA

Bestalde, orain dela gutxi AEDk elkartearen 20. urteurreneko ospakizunak bukatu ditu. Urteurren biribil hori ospatzeko, egitarau zabala antolatu zuten. Bi astean hainbat ekitaldi egon dira eta denetarik ekintzak antolatu dituzte: besteak beste, bertso bazkaria, mendi irteera, umorezko antzerkia eta euskalgintzak duen etorkizunaren gaineko mahai-ingurua.

AEDko kideen helburuak bete egin dira. Euren esanetan, ez zuten gura antolatu elkartearen 15. urteurrena bete zuteneko moduko egitarau erraldoirik. Gauza xumeagoak egin gura zituzten, formatu txikiagoko gauzak eta lagunarteko ekintzak. Herri osoari zabalik, baina muntaia erraldoi barik.

AEDko arduradunak pozik daude ekitaldiek izan duten harrerarekin. Esaterako, bat aipatzekotan, orain dela gutxi Uarkapeko tabernan egindako bertso bazkaria dute gogoan. Bertso bazkari horrek arrakasta handia izan zuen eta oso giro ona sortu zen, bertsolarien eta trikitilarien laguntzarekin. Halako ekintzak errepikatzeko beharra sumatu dute, nonbait, AEDko lagunek.

Bertso Jaialdia

ARRASATE

Lekua: Amaia Udal Antzokia

Eguna: abenduaren 22an

Ordua: 20:00etan




Andoni Egaña



Maialen Lujanbio



Aitor Mendiluze



Enaitz Alustiza



Amets Arzallus




Sarrera 6 euro

Gai-jartzailea:
Lierni Altuna

Ezagun da Arrasaten bertsolaritza-zale asko daudela.

*Gipuzkoako
bertsolari jaialdiko
irabazleak, Maialen
Lujanbiok, zer
esana emango du*




150 Years

“Erloju on bat edonoren eskuetan egon daiteke”

JOXAN

BITXITEGIA ETA ERLOJU DENDA

Portaloia 8
Tel.: 943 79 22 24
ARRASATE



Arrasate Musika Eskolako Bandak urte bukaerako kontzertua egingo du

IKER BARANDIARAN

Azken 9 urteotan, abenduaren 31n, Arrasateko Musika Eskolako Bandak kontzertua egin du Amaia Udal Antzokian. Horrez gain, egun berean, bandak eta txistulariek kalejira egingo dute alde zaharrea. Arrasatearrek oso gustura hartzen dituzte ekitaldi horiek.

Arrasateko Musika Eskolako Bandak kontzertua egiten du urtero abenduaren 31n, 1994a ezker. Egundun berean, bandak eta txistulariek kalejira egiten dute, musika herritarrengana eramateko asmoz eta, bide batez, herritarrek Amaia Udal Antzokira erakartzeko.

1994an Arrasateko Musika Eskola Banda sortu zuten, eta urte hartan hasi ziren abenduaren 31n Amaia Udal Antzokian Gabonetako kontzertua egiten. Horrez gain, bandak urtean beste hainbat ekitaldi finko egiten ditu: Santa Zezilia eguneko kalejira, Aratusteetako kalejira, haur danborrada, Errementari dantza eta San Juanetako kalejira eta kontzertua, hain zuzen ere. Herritarrek hitzordu horiek aintzat hartzen dituzte, eta guztiek oso harrera ona izaten dute.

BANDAK, ZUZENDARI BERRIA

Irungo Iker Olazabal da bandako zuzendaria. Horrez gainera, Arrasateko Musika Eskolako tronboi, bombardino eta tuba irakaslea ere bada. Hain zuzen ere, Santa Zezilia eguneko kalejiran estreinatu zen, eta abenduaren 31n



Arrasateko Musika Eskolako Bandan bi tuba daude.

lehenengo aldiz bandaren kontzertu bat zuzenduko du.

Abenduaren 31n kalejira egingo dute, 11:00etan. 70 bat musikari ibiliko dira eta honako ibilbidea egingo dute: Maala kalea, Seber Altube, Arbolapeta, Herriko Plaza eta Iturbide egoitza. Kalejira horretan pieza hauek joko dituzte: Tomas Acebalen *El bala* eta *Gainza*, hain zuzen ere.

Kalejiraren ostean, bandak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian. Hainbat instrumenturen doinuak entzungo dira: txirulak, oboeak, fagotak, klarine-

teak, saxofoiak, fliskornioak, tronpetak, bombardinoak, tubak eta perkusioa, hain zuzen ere.

Amaia Udal Antzokiko kontzertua 13:00etan izango da. Bandak honako piezak joko ditu: Mokoroaren *Ordizia* obertura, Holst-en *Second suite* martxa, Chatterway-ren *Montenido* poema sinfonikoa, Shostakovitch-en *Folk dances* Errusiako dantzak, Stalman-en *The call of Christmas* Gabonetako obertura, Kolash-en *Bossa nova forever*, eta Kraednock-en *T.V. Showcase*. Urtero moduan, kontzertua doan da.

'Arte grafikoa eta originala' izeneko erakusketa ipini dute

I.B.

Ekimen pribatu batek erakusketa bitxia ipini du Iturriotz kaleko 35ean. Erakusketak *Arte grafikoa eta originala* izena du, eta artista oso ezagunen lanak batzen ditu: eskulturak, margolanak...

Iturriotz kaleko 35. zenbakiaren albotik pasatuz gero, han dagoen galeriaren barruan dauden kolore indartsuek herritarren begiradak erakarriko dituzte. Izan ere, ekimen pribatu batek *Arte grafikoa eta originala* izeneko erakusketa ipini du, eta euskal artista garrantzitsuen 70 bat lan batu dituzte.

ZUMETA, TXILLIDA ETA BESTE BATZUK


Harriztekoa da Arrasaten, erakusketa berean, Zumeta, Txilli-

da, Dora Salazar, Gorriti edo Kolobika Jauregi eta beste artista ezagun batzuen lanak ikustea.

Erakusketa abenduaren 4an zabaldu zuten eta urtarrilaren 11 arte bere horretan egongo da. Astelehenetik zapatara goizez (11:30etik 13:30era) eta arratsaldez (17:30etik 21:00etara) zabalik egongo da. Domeketan, ostera, 11:30etik 14:00etara. Galeria hori Harresi aretoaren alboan dago.

Erakusketaren arduradun Usoa Zumetak azpimarratu du oso erakusketa ikusgarria dela; kolore asko du eta margolanek indar handia dute.

Hamar artistaren lanak daude: bost eskultore eta bost margolari, hain zuzen ere. Margolanak, serigrafiak, eskulturen zirriborroak eta eskulturak daude. Gehienak salgai daude. Lagun askok ikusi dute erakusketa.



GORKA MORRAS

Oso lan ikusgarriak batu dituzte erakusketan.



Udalatx
Inmobiliari A

Tel.: 943 79 59 99

Faxa: 943 79 92 00

Maalako Errabala, 27 behea-ekz.

ARRASATE

www.udalatx.com
udalatx@udalatx.com

OINETAKOAK ETA POLTSAK

Year

ARRASATE
Biteri Etorbidea 13
Tel.: 943 79 21 71

BERGARA
Barrenkale 9
Tel.: 943 76 22 86

LOOKY
KOLLFLEX
MACARÓ
WONDERS
HISPANITAS
PATRICIA
PIELSA
ORIGINAL
CLARKS
24 HRS.
YANKO
N.O.D.
ESCALENIO
CATS
LODY



JOSE ANTONIO
gizonezkoen ile apaindegia

Gabon
zoriontsuak!!




San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak




ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Berritze lanak
Barruko erreformak
Obra berriak

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Tel.: 943 79 67 78 / 639 77 86 90
Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE



BEHEKODENDATIK

Mertxe Plazaola Bengoa

EHUNE

XABIER URZELAI

Hamalau urte egingo dittu Ehunek Gabonetan: hamalau urte herritar askon etxiek janzten. Lehen, Gabonetan gehixau saltzen euen, baiñe ohiturak aldatu egin diela esaten dau Mertxek: "Gaur egun, herritar askok kanpuen pasetan daue Gabonak".

Txikittan ze gure zeuen izen?
Lelengo, haundi. Sekretarixa edo pelukera izen gure neuen.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?
Ez, dendan oso pozik nau.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Historias minimas / El futuro en un país lejano / Kantautoriek gustetan jat.

Ze egon da aurren sobran?
Politikuen barriketak.

Datorren urterako hobetu biherreko zerbait?

Ondasune hobeto banaketie.

Santamasetan zerekin disfrutetan dozu?

Azokiekin.

Nora juengo zitzake gustora?

New Yorkera, Gabonetan.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez larregi. Lagunartien egonez gero, leku danak die onak.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Hautsa kentzie.

Bizio bat?

Lo egittie.

Zerk arduraketan zau?

Lanak.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Tranpetan bada, hobe ez esatie.
Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Metrue.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Mondraguen multiziniekin egin biherdittuela.

Ze lan egitten dozue Ehunen?

Etxiek janzten dittugu: lanparak, mueblik, alfonbrak... Etxiek apaindu, azken baten.

Etxie barrutik txukun ipintteko dirue biherko da ba.

Jentiek pentsetan dauena baiño gutxiau, artikuluek asko merketu die-eta. Gaiñera, gauzak poliki egittie komeni da: lelengo txoko bat apaindu, gero beste bat. Sarrittan, jentiek dana batera egin gure izeten dau, baiñe poliki-poliki be oso txukun ipiñi leike etxie.

Egongelie ipintterakuen, nundik hasi?

Jeneralien, jentie kortiñak ipintten hasten da. Leihuek tapaute dauzenien, mueblik, lanparak, beste detaille batzuk... Gauza asko egin leike. Hasi, baiñe, kortiñekin hasten die gehixenak.

Zenbat bider pentsau dozu etxeko egongelie barritu biher dozule?

Egixe esatiarren, ez dot holakorik pentsetan. Behin ondo jarritte, denbora askuen ez dau aldatu biherrik. Egixe da beti gustetan jatela detailletxo bat-edo aldaketie.

Zenbatetan irabazi dozue Santamasetako eskaparate lehiaketie?

Ez dakit ba... Eskaparatie txukun eukittie gustetan jat, dendako ispillue dalako. Azken baten, dendan ze dauen erakusten da eskaparatiien.




"Etxe txukuna, txoko kuttuna. Hori da Ehunen daukegun lehue, eta hori lortzeko egitten dogu lan"

"Eskaparatie txukun eukittie gustetan jat; azken baten, denda barruen dauena erakusten da"



- * Larruzko artikulua
- * Bisuteria
- * Oparitarako artikulua

Kanpatorpea 4 behea • Tel.: 943 79 12 19 • ARRASATE



ARREGI

arte eta
enmarkazio
tailerra

erakusketak

Maalako Errebala, 8 · ARRASATE · 943 79 56 44 · arregi.arte@lycos.com



Etor zaitez:

CHAPIME TAILERRAK SCL Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala

San Andres auzoa 5 Tel.: 943 79 45 22. ARRASATE.



CITROËN



Olentzero Marrazki Lehiaketan herriko ludoteketako 128 ume eta gaztetzok esku hartu dute

I.B.

Txatxilipurdik, Goienarekin elkarlanean, Olentzero Marrazki Lehiaketa antolatu du. Urteroko kontua da, baina aurten deialdia eskoletan egin beharrean Santa Marinako eta Okendoko ludoteketan egin dute. 128 ume eta gaztetzok hartu dute parte.

Txatxilipurdik kudeatzen dituen bi ludoteketako -Santa Marina eta Okendo- 128 ume eta gaztetzok esku hartu dute lehiaketa

horretan: 3 eta 8 urte bitarteko 89 lagunek eta 9 eta 12 urte bitarteko 39 lagunek, hain zuzen.

Abenduaren 5ean egin zuten sari banaketa Okendoko ludotekan. Honako hauek izan ziren irabazleak: 3 eta 5 urte bitartekoen artean, Ane Elortza, Josu Ayucar eta Maialen Langaran; 6 eta 8 urte bitartekoen artean, Amets Ormaetxea eta Ander Teran; eta 9 eta 12 urte bitartekoen artean, Leire Gonzalez eta Yaiza Toste. Txatxilipurdik txikienei yo-yoak, arkatzak, margoak, eta abar eman zizkien. Nagusiagoei, oster, Txa-

rri-jolasa opari egin zien; bestalde, Goienak zinemarako eta Aquariumerako sarrerak opari egin zizkien irabazleei.

SARIKETA EKITALDIAN, KARAOKEA

Sariak emateko ekitaldia Okendoko ludotekan egin zuten. Parte-hartzaile guztiei gonbidapena egin zieten. Santa Marinako erabiltzaile asko sariketara joan ziren, baina batzuek kale egin zuten.

Sariak banatu ostean, argazkiak atera zituzten, eta umetxo batzuek karaokea antolatu zuten.

Santa Marinako eta Okendoko ludoteketako erabiltzaileek hartu dute parte

Txikienei margoak eta bestelako materiala eman dizkiete; nagusienei, Txarri-jolasa

Goienak zinemarako eta Aquariumerako sarrerak eman dizkie parte-hartzaileei

IRABAZLEAK



Leire Gonzalez.
Okendoko ludoteka. 9-12 urte.



Yaiza Toste.
Sta. Marinako ludoteka. 9-12 urte.



Amets Ormaetxea.
Okendoko ludoteka. 6-8 urte.



Josu Aiukar.
Sta. Marinako ludoteka. 3-5 urte.



Ander Teran.
Sta. Marinako ludoteka. 6-8 urte.



Ane Elorza.
Okendoko ludoteka. 3-5 urte.

TABIRA

Zorionak eta urte berri on, guztioi !

AKZO NOBEL

pinturas
Procolor

Okendo kalea 3, behea • ARRASATE • Tel. eta faxa: 943 77 01 59

- Mota guztietako pinturak, bernizak, egur-babesleak, esmalteak...
- Margotutako paperak eta zoru laminatuak
- Zerbitzu paregabea
- Aholkularitza profesionala



NACEX



**Zure konfidantzarekin segitzeko asmoz
ilusioz beterik lanean dihardugu
Urte berri on!**

AENOR
R
Empresa
Registrada
IR-0276/2/98
ISO 9002



943 79 92 77

www.nacex.com



900 100 000

Informazio orokorra

Orain

Debagoiena *esku-eskura*

Goiena.net

Debagoieneko ataria Interneten



zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...



Kimetz



Gure leku



Boliñete



Okoretegi



Itzala



Rumba



Ezkiña

GABONETU

Jai zoriontzuz



Monte



Iturriotz



Ekaitz



Biona



Lora



ati

ET) IZARRAK

ionuztiontzat!

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Eguberrri on!

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. DHL markapean bildudira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako burudena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko burudena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko burudena. Honela ari garen zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukeragehiago jartzenditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharriak doze indirela ere, horie irantzun aurreratuak prest gaudu. Jarraituz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

E, TXO!

GABONETAKO PARKEA / TXIKILANDIA

Gabonetako Txikilandia parkean, umee eta gaztetxoek jolas egiteko aukera paregabea

LEHEN SOROSPEN IKASTAROA ANTOLATU DUTE

Txatxilipurdik lehen sorospen ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 10ean, zapatua, egingo dute, Txatxilipurdiren egoitzan (Pablo Uranga). 09:30etik 14:00etara ibiliko dira horretan. Eskolak hartzeko matrikula bost eurokoa da. Txatxilipurdin bazkaldu gura izanez gero, ostera, 12 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko azkeneko eguna da urtarrilaren 7a.

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA ANTOLATU DUTE

Txatxilipurdik aisialdiko begirale ikastaroa antolatu du. Urtarriletik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Arrasaten egingo dute, eta hilean behin asteburu osoa aterpetxean egingo dute. Interesatuak 200 euro ordaindu beharko dituzte, eta izena emateko Txatxilipurdi elkartera jo beharko dute (Pablo Uranga kalea) edo telefono zenbaki honetara deitu (943 79 54 46). Ikastaroan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da 2004an gutxienez 18 urte beteta izatea.

SESTAOKO IPUIN LABURREN LEHIAKETA

Sestaoko gaztelekuak Ipuin Laburren VIII. Lehiaketa antolatu du. Interesatuak, parte hartzeko, gai libreko ipuina idatzi beharko dute. Hori bai, lanak fantasiatzkoa behar du izan. Hau da, errealtatearen mugak gainditu behar ditu. Esaterako, zientzia fikziozko edo Erdi Aroko istorioa izan daiteke.

Lehiaketako lanak abenduaren 31 arte hartuko dituzte. Lehiaketaren gaineko informazio gehiago behar izanez gero, deitu ondorengo zenbakira: 944 72 21 27.

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdik Gabonetako Txikilandia parke erraldoia antolatu du. Urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean egingo dute, Musakolako kiroldegian. 60 begirale ibiliko dira lanean, eta Aramaiotik, Eskoriatatik eta Aretxabaletatik autobusez doan joan ahal izango da.

Urtero moduan, Txatxilipurdik Txikilandia Gabonetako parke erraldoia antolatu du. Dagoeneko 14. edizioa da hau. Arrasateko eta ibarreko gainontzeko ume eta gaztetxoendako ezinbesteko hitzordua. Urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5eko goizean egingo dute. Lau egun horietan umeak gustura joango dira Musakolako kiroldegira. Txatxilipurdiko lagunak iraila ezker dabilta parke erraldoi horren xehetasun guztiak antolatzen.

Are gehiago, Txatxilipurdik autobusa doan ipiniko du Aramaiotik, Eskoriatatik eta Aretxabaletatik Musakolara joateko. Eskoriatatik lehena 10:15ean irtengo da; Aramaiotik, ostera, 11:15ean. Bueltarako, berriz, Aretxabaletara eta Eskoriatzara joateko azkena 19:15ean irtengo da Musakolatik. Eta Aramaiora joateko azkena 20:10ean irtengo da.

ADIN GUZTIENDAKO GUNEA

Txikilandian ume, gaztetxo eta guraso guztiak izango dute lekua: 0 eta 2 urte bitartekoak Bilin-Bolonka gunean jolas egingo dute; 3 eta 6 urte bitartekoak, Txiki-Txokoan; eta gurasoek Gurasotekan taberna eta atsedan-lekua izango dute. Horietako bakoitzean adin tarte bati zuzendutako puzgarri eta tailerrak ipiniko dituzte.

Horiez gain, kiroldegiko kantxan zortzi bat puzgarri ipiniko dituzte, baita karaokea eta tailer mordoia ere. San Antolingo pilotalekuan, ostera, kart autoak, mahai-futbol biziduna, *goming-a* eta beste joko batzuk egongo dira. Ipuinen Txokoa ere prestatuko dute. Freskatu gura dutenek igarilekuan hainbat jokorekin eta



Urtero moduan, Txatxilipurdik hainbat tailer eta puzgarri ipintzeaz gain, karaokea ere antolatu du.

Adin guztientzako gune bereziak ipiniko dituzte; ume eta gaztetxo guztiak izango dute zer egin

puzgarriekin jolas egiteko aukera izango dute.

Aurreko urteetan, batez beste, eguneko 500 bat ume eta gaztetxo pasatu ziren. Aurten ere beste horrenbeste edo gehiago joatea espero dute.

Lehenengo hiru egunetako sarrera eguneko 4,5 eurokoa izango da. Azkeneko egunean goizez bakarrik zabalik egongo denez, 3,2 euro ordaindu beharko dira. Horrez gain, lau egunetarako bonoak eskuragai ipini dituzte, 12 eurotan. Txatxilipurdin edo Musakolan erosi daitezke.



Adin guztietako ume eta gaztetxoek izango dute non eta zertan jolastu.



AMAGARA

*Edertasuna opari egitea amodioa opari egitea da
¿Asmatu gura duzu?
Edertasun produktu eta zerbitzuak opari egin*

Gabon jai zoriontsuak!

Erdiko kalea 54
Tel.: 943 79 09 09

ZAHARRENETXETIK

Musakolako karta joko lehiaketak, harrera ona

IKER BARANDIARAN

Urtean birritan Musakolako erretiratuen elkar-
teak karta joko txapel-
ketak antolatzen ditu;
San Isidroan eta abendu erdial-
dean, hain zuzen ere. Hala, joan
den astean mus, tute eta briska
joko txapelketak jokatu zituzten.
Musakolako erretiratuen elkar-
tean ekitaldiak antolatzeko leku
txikia daukate. Egoitza oso txikia
da eta hura erretiratu askok era-
biltzen dute. Udalak beste egoi-
tza bat noiz eman zain daude, eta
bitartean egoitza zaharrean elkar-
tzen dira. Arrazoi horregatik,
leku faltagatik, urtean ez dute
ekitaldi askorik antolatzen. Hala
ere, neguko eta San Isidroko kar-
ta joko txapelketak urteroko
hitzordu bilakatu dira. Eta musa-
kolarrek harrera oso ona egiten
diete horiei.

Joan den astean Musakolako
bazkideak karta jokoan ibili
ziren. Martitzenean, hilaren 9an,
bederatzi bikotek briska txapel-
keta jokatu zuten. 16:00etan
hasi eta 19:30ean bukatu zuten
lehia. Horietatik 17 emakumez-
koak ziren eta eurekin batera
gizonezko bakarra. Mikaela

Murua eta Juanita Gil izan ziren
irabazleak. Eurentzako izango
da saria.

GAUR, MUS ETA TUTE FINALAK

Eguaztenean, hilaren 10ean,
berriz, mus txapelketa jokatu
zuten. 16 bikote lehiatu ziren,
denak gizonezkoak. Eta joan den
egubakoitzean finala jokatu zuten.

Eguenean, hilaren 11n, bes-
talde, tute txapelketa jokatu zuten.
23 bikote lehiatu ziren, horiek ere
denak gizonezkoak. Eta eguba-
koitzean finala jokatu zuten.

Beraz, egubakoitzean, hila-
ren 12an, egun handia izan zuten.
Mus eta tute finalak jokatu ondo-
ren, hiru txapelketetako -mus,
tute eta briska- sariak banatu
zituzten.

San Isidroko txapelketetan
garaikurrak ematen dizkiete ira-
bazleei. Abenduko honetan, oster-
a, turroia, xanpaina, ardoa eta
bestelakoak banatu zituzten.
Horren ostean, ekitaldia ondo
bukatzeko, parte-hartzaile guz-
tiek luntxa izan zuten.

Txapelketa horren amaiera-
rekin eta gaur, egubakoitza, egin-
go duten ekitaldiarekin bukatu-
ko dituzte aurtengo ekintzak. Ea
datorren urtean zer egiten duten!



GORKA MORRAS

Musakolako erretiratuen elkarteko emakumeek maila handia dute briska jokoan.

75 urtetik gorakoak omenduko dituzte

Gaur, egubakoitza, Musakolako erretira-
tuen elkartek 75 urtetik gorako bazkide-
ei omenaldia egingo die. Urtero, sasoi
honetan, elkarteko zaharrenak batu eta
askaria egiten dute. Iaz 28 lagunek hartu
zuten parte eta aurten gehiago izango
direla espero dute. Lerro hauek idaztera-


ko orduan, 20 baino lagunek gehiagok
emana zuten izena. 17:00etan elkartuko
dira eta askaria izango dute: txokolatea
eta txurroak, hain zuzen. Horren ostean,
guztiek opariak emango dizkiete. Zalantza
barik, aurten ere gehienak emakumezko-
ak izango dira. Urte askotarako!!!



izarra

• KOPISTEGIA •

- Fotokopiak
- Inpresio digitala
- Inprimategi lanak
- Plastifikazioak
- Koadernaketak
- Fax zerbitzuak
- E-mail bidez inprimaketak
- Bulego materiala
- Ezkontza gonbitak
- Txartelak
- Kautxuzko zigiluak



- Interneterako sarbideak eta zerbitzuak
- VPN sare pribatu birtualak
- Sareen segurtasuna
- Posta elektronikoa segurua
- Domeinuen gestioa eta mantentze-lanak
- Komunikazioetan irtenbide orokorrak

- Telekomunikazioen eta Zerbitzu Telematikoen Ingeniaritza
- ADSL lineak


Tel.: 902 15 87 17
e-maila: info@conet.es
www.conet.es

Iturriotz kalea 21, ARRASATE



*Oporrak heldu dira
Animo lagunak
Ikasi ta ikasi
Joan dira egunak
Ondo pasa itzazue
Aurtengo Gabonak
Eskola honen partetik
Danoi, Zorionak*

*Arrasate Herri Eskolako
bertsolaritza taldea*



Baster-alde jatetxea

- Zure ezkontza eguna ospatzeko leku eta giro paregabea daukagu.
- 160 lagunentzako jangela eta aparkalekua.
- Terraza berria ahur parkearekin.
- Enpresa bazkariak jangela pribatuarekin.
- Bataioak, jaunartzeak, urtebetetzeak eta lagun arteko bazkariak.



Karta eta menua
ditugu aukeran.

Galartza auzoa - ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

Faxa: 943 79 85 26

AURTENGO SANTAMASAK OSPATZEKO ESKURA EZAZU ALCATEL 332 25€tik AURRERA!!!

- *KOLOREDUN PANTAILA
- *GPRS
- *DOINU POLIFONIKOAK

HORREZ GAIN, BESTE ZERBITZU HAUEK ERE KONTRATA
DITZAKEZU GUREKIN:

- SARBIDE ZUZENA
- ZEHARKA SARBIDEA (AURREZ HAUTAKETA)
- BANDA ZABALA
- INTERNET
- POLTSIKOKOAK
- 30€-ko TXARTELAK EROSITA, EURITAKO TXAPELA OPARI



**ROUTER
COMUNICACIONES, S.L**

MAALAKO ERRABALA 8, BEHEA
GARIBAI ATZEALDEA
TEL.: 943 71 27 81
FAXA: 943 71 17 85
20500 ARRASATE

Banatzaile Ofiziala:

Euskaltel

Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkartean jaiotza erraldoia ipini dute

IKER BARANDIARAN

Azken 13 urteotan, Toki Argi erretiratuen elkartean jaiotza erraldoia ipini dute. Bixente Azkaratek du horren ardura eta Toki Argiko batzarkideek lagundu egiten diote. Aurten ipini duten jaiotzak zortzi metro koadro ditu, eta berrogei bat piezak osatzen dute.

1990etik gaur egunera arte, Gabonetan, Toki Argi erretiratuen elkartean jaiotza erraldoia ipintzen dute. Orain dela hamahiru urte, Bixente Azkaratek hartu zuen ardura hori, eta orain dela hiru urte arte hil zen arte -Lazaro Parrak laguntzen zion. Azken urteotan, Toki Argi elkarteko beste batzarkide batzuek laguntzen diote.

Aspaldiko ohiturari jarraituz, abenduaren 8a baino lehen ipintzen dute jaiotza hori. Bezperan, Udalak ohol batzuk ipintzen ditu. Hurrengo egunean, berriz, lau bat lagunek, elektrikari baten laguntzarekin, jaiotza ipintzen dute. Guztira, hiru bat ordu ematen dute lan horretan.

Orain dela bost urte arte, Toki Argi elkartean bi jaiotza ipintzen zituzten: handiena ohiko lekuan eta

beste bat, askoz txikiagoa, sarrean. Gerora, bakarra jartzea erabaki zuten.


ZORTZI METRO KOADRO ETA 40 PIEZA

Orain dela hamahiru urte, Bixente Azkarate jaiotzarako piezak erosten hasi zen. Horretarako, Gasteizera eta Donostiara jotzen zuen. Urtez urte, pieza gehiago ipintzen dituzte, eta hainbat eta hainbat ordezkatu egin behar izan dituzte. Marmolezkoak izaten dira eta, diotenez, garesti samarrak dira. Hain zuzen, Toki Argiko eskulanetan margotzen dituzte pieza horiek.

Jaiotza oso handia da: 40 bat pieza ditu eta, gutxi gorabehera, zortzi bat metro koadro. Belenzaleen Elkarteak ipintzen duena alde batera utzita, herriko jaiotza handiena izango da.

Urtero pieza berriak erosten dituzte eta Bixente Azkarateren eta haren laguntzaileen asmoa da geroago eta jaiotza handiagoa egitea. Erretiratuen elkarteko patioaren buelta osoa jaiotzarekin bete gura dute. Helburu hori lortzeko bidean daude.

Herritarrek oso ondo hartzen dute ekimena. Izan ere, Musakolatik, erdialdetik eta, oro har, herri osotik joaten dira jaiotza ikustera.



GORKA MORRAS

Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkartean ipintzen duten jaiotza oso ikusgarria da. Lagun asko joaten dira ikustera.



Estella ortopedia



Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA
Matxiategi 5 • Tel.: 943 76 19 63 • BERGARA

RPS 421/97

Ondo pasa itzazue Gabonak!

Etixerako laguntza teknikoa



Kirol Ortopedia



Mastektomiak



Neurrira eginiko plantillak. Oinetakoak





ARRASATE
Jorge Andres
Abenduaren 19an, 30 urte.
Zorionak, *kaiño*. A ze *kati-to lindo!* Lagunak.



ORDIZIA
Iban Toledo
Abenduaren 22an, urte-betetzea. Zorionak, *Tole!* Laneakoak.



ARRASATE
Aitziber Otxoa
Abenduaren 16an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Josu Uribarren
Abenduaren 13an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
David Oñate
Abenduaren 19an, 2 urte.
Zorionak! Aiton-amona eta osaba-izeba.



ARRASATE
Espe Lizarralde
Abenduaren 15ean, urte-betetzea. Zorionak! Zure lagun kazetariak.



ARRASATE
Ana Perez
Abenduaren 19an, urte-betetzea. Zorionak! *Barbie-girls*-en partetik.



ARRASATE
Ander Menendez
Abenduaren 27an, 1 urte.
Zorionak, Del Palacio! Gurasoak eta familia.



ARRASATE
Vitori Altuna
Abenduaren 23an, urte-betetzea. Zorionak, bihotzez, familiakoen partetik.



ARRASATE
Mikel Altuna
Abenduaren 29an, urte-betetzea. Zorionak, bihotzez, familiakoen partetik.




ARRASATE
Jokin Orobengoa
Abenduaren 18an, 20 urte.
Zorionak! *Gibelurdi* eta *amaniten* partetik.



ARRASATE
Mikel Oceja
Abenduaren 18an, 20 urte.
Zorionak! Arrasateko neska guztien partetik.



ARRASATE
Imanol Elorza
Abenduaren 24an, 26 urte.
Zorionak, *Imanolito!* Lan-kideak.



ARRASATE
Aitor Oskotz
Abenduaren 26an, 25 urte.
Zorionak, *Pitu!* Laneakoak.



ARRASATE
Ainhoa Mendizabal
Abenduaren 17an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Eider Zeziaga
Abenduaren 20an, 7 urte.
Zorionak! Judith, Oihana eta Nerea.



ARAMAIO
Sabin Aranburu
Abenduaren 29an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Alex Altuna
Abenduaren 21ean, 11 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Naiara Agiriano
Abenduaren 16an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Mainer Agiriano
Abenduaren 23an, 17 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Iñaki Gerrikabeitia
Abenduaren 9an, 17 urte.
Zorionak! Koadrilaren partetik. Aupa, *Japon!*

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS Otalora
Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



Zer ospatzen dabilta umeak mendian?
Arrastoa: zuhaitzak landatzen dabilta.

ARTXIBOA



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

El Mar
20-30 kiloa

10,79€ 1.795 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

J. ANTONIA ERIZrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, J. Antonia!
Galderen erantzun zuzena:
Santa Barbarako txabolatxoa.

ARRASATEKO HISTORIA

Etxagibel Notarioa kalearen gaineko aipamen batzuk

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

Gipuzkoa etorbidean hasten da Etxagibel Notarioa kalea, Musakola Hostalaren inguruan, hain zuzen ere. Etxagibel Notarioaren gainean Maximo Garcia Venero historiagileak zera dio *Historia del Nacionalismo Vasco* lanean: gerrak iraun zuen artean, gipuzkoarren arteko gerra saiakerek indarra hartu zuten. Baina, ideologia arazoan itxura zuten ika-mikek, armekin ez ziren borrokatu-eta. Triunbiratuak eta haren aldekoek frantsesei lagundu eta gipuzkoarren kontra egin zuten. Izan ere, gipuzkoarrak protektoratu frantsesaren kontra altxatu ziren.

Triunbiratuak eta haren aldekoek frantsesei lagundu eta gipuzkoarren kontra egin zuten

Altxamendua egiteko seinalea Arrasateko Jose Maria de Etxagibel notarioak eman zuen

Altxamendua egiteko seinalea Arrasateko Jose Maria de Etxagibel eta Orbe notarioak eman zuen. Eta eskualdeko 18 zinegotzik onartu zuten. Leintz Errege Bailarak, haren Aretxabaletako eta Eskoriatzako alderdiek eta Mutrikuk gerrarako gizonak eta dirua eman zituzten. 18 zinegotziok batzordea eratu zuten 1794ko irailean. Arrasaten egin zuten hori, eta foru diputatuak izendatu

zituzten. Honako hauek: Manuel Jose de Murua, Ramon de Gaztainadui, Ignazio Maria de Barroeta, Villafranca de Gaitango kondea, Erromatar-Germaniako Inperio Santuko kondea eta Monterrongo kondea. Gipuzkoako ordezkariak eta frantsesen etsaitzat aurkeztu zuten euren burua. 1795ean, Gatzagan elkartu eta berretsi egin zuten erabakia. Egoera



ARTXIBOA

Gipuzkoa etorbidean hasten da Etxagibel Notarioa kalea, Musakola Hostalaren inguruan.

militarra ez zen oso pozgarria. Dena dela, herri osoko boluntarioek eta nafarrek Iruñea hartu gura zuten frantsesak geldiarazi zituzten, mendebalean, Deba ibaiaren inguruan. Hala eta

gutziz ere, inbaditzaileek berriro egin zuten mehatxua Bizkairan eta Arabaren zati bana hartu zutenean.

Gerrako kontu horien eraginez, Gipuzkoako Diputa-

zioak (jakina, Arrasaten aukeratutakoak), Arabakoak eta Bizkaikoak atzera egin behar izan zuten, Burgoseraino, eta han segitu zuten inbaditzaileen kontra borrokan.



SANTAMASAK 2003 GOIENA TELEBISTAN

Arrasaten bertan egotea bezala

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

SANTAMASAK 2003
Saio berezia

Martitzenean, abenduaren 23a,
21:15ean

Santamasak

ARRASATE / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 19a / SANTAMAS JAIEN GAINEAN ZENBAKI BEREZIA

**Tradizioari
eutsita,
etorkizunari
begira**

ARGAZKIA: ANDER GILLENEA



Erdiko kale 14 • Tel.: 943794694 • ARRASATE



Jakiak erosteko aukera zabal eta polita baserritarren-eta saltokietan

Frutak, barazkiak, landareak, ogiak, eztiak, gaztak eta kontserbak. Horixe eskainiko digute aurten baserritarrek Seber Altuben. Guztira, 20 bat saltoki. 09:30erako txintxo-txintxo hantxe izango dira, ortuko eta bestelako produktu goxoekin tentatzen.

Saltzaile gehienak ingurukoak izango dira: Aramaio, Antzuola, Aretxabaleta, Bergara, Gatzaga eta Eskoriatzakoak. Baina izango dira urrunagotik etorritakoak ere: Bizkaitik (Gatika, Muxika eta Berriz) eta Gipuzkoatik (Mutriku, Segura eta Gabiria). Esan bezala, 20 dira guztira. Horietatik bat loreak saltzen ibiliko da; bi ortutako produktu ekologikoak saltzen; beste bi ogia saltzen; eta Jakion-ek kontserbak salduko ditu. Gainerakoek frutak eta barazkiak izango dituzte.

Horrez gainera, gazta erosteko aukera ere izango da; eta Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko eztagileek ere ipiniko dituzte euren produktu goxoa jendearen eskura.

BITERIN 70 BAT SALTZAILE

Baserritarrei laguntzen, eta haiengandik gertu (Biteri aparkalekuan), bestelako produktu ugari ikusi eta erosi ahal izango

dira: ardoa, sagardoa, txakolina, txokolatea, postreak, hestebeteak, fruta-arbolak...Leku guztietatik ekarriko dituzte produktuak: Euskal Herri osoa (Nafarroa Beherea, Usurbil, Gernika...) eta baita Errioxatik eta Frantziatik ere. Besteak beste, ahate-pateak ekarriko dituzte Santamas azokara. Bestalde, gertu-gertuko saltzaileak ere izango dira; adibidez, Eskoriatzatik uxuala ekarriko dute eta Arrasateetik pastel goxoak. Eta, gobernuz kanpoko Harreman taldeak saltokia ipiniko du Hirugarren Munduko produktuekin.

20 bat baserritar eta 70 bat saltzaile izango dira Seber Altuben eta Biteri aparkalekuan



Ortuko produktu ugari ikusi eta erosi ahal izango da Santamas azokan.

EZTI, GAZTA, FRUTA ETA BARAZKI LEHIAKETAK



ARTXIBOA

Eguerdi partean lehiaketak izango dira

Jakina, halako aukera zabal eta polita ikusita, hoberenak aukeratzeko aprobetxatu eta barazki, fruta, gazta eta ezti onenak sarituko dituzte. Aipatu behar da, adibidez, gazta lehiaketako parte-hartzaileek norberaren artaldeko latxa ardi-esne gordinarekin egindako gaztak aurkeztu beharko dituztela. Lehiaketei dagokionez, 11:00etan, Seber Altuben, barazki eta fruta onenari sariak banatuko dituzte. Barazki eta fruta onenari 210 euro emango dizkiote; bigarrenari, oster, 150 euro. 12:00etan, berriz, Azoka plazan ezti eta gazta onenei sariak emango dizkiote. Gazta onenari 210 euro eta bigarrenari, 150 euro. Ezti onenari, 150 euro; bigarrenari, 120 euro; eta hirugarrenari, 90 euro. Eta ogi onena ere aukera dezake epaimahaiak. /U.M.


HOTEL MONDRAGON

Biteri etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43
Posta-e : hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com



ibai-arte

Aldedi ■ Alonso Anaiak ■ Altuna ■ Anboto ■ Aranzabal ■ Arrasate Zoo ■ Arregi ■ Artea ■ Bea
■ Bed's ■ Beinke ■ Belem ■ Ceciaga ■ Egizabal ■ Ehune ■ Elgoro Expert ■ Eya ■ Eya ■ Elorza
■ Eroski Bidaiak ■ Erosle ■ Etxe Lan ■ Etxe Mobiliario ■ Euskadiko Kutxa ■ Feli ■ Flash ■ Foto
Imagen ■ Galeria 44 ■ Garagorri ■ Gili-Gili ■ Haurtxoa ■ Hemen ■ Hire ■ Ikatz ■ Itzala ■
Izozkitegi ■ J. Uriarte- Tamayo ■ J.G. ■ Juanma ■ Kajoi ■ Kilikolo ■ Klas ■ Kutxa ■ La Caixa
■ Laket ■ Landaluze ■ Lasagabaster ■ Lilura ■ Lorategi ■ Lore ■ Los Vaqueros ■ Luko ■ Mabel
■ Marga ■ Markiegi ■ Mayte ■ Maza ■ Milar Elgoro ■ Monte ■ Muruamendiaraz ■ Nerea ■
Oihana ■ Benetton / Onandia ■ Otamendi ■ Parlance ■ Phildar ■ Portaloiko Kioskoa ■
Portaloiko optika ■ Sikol ■ Sugar ■ Tokion ■ Tomas ■ Totem ■ Troko ■ Txuntxurunberde ■
Udalaitz ■ Ume ■ Uriarte Sport ■ Urrats ■ Zabaleta ■ Zarraoa ■ Zubia ■ Zubiaga ■ Zur-Lur



Gabonetan Ibai-arten
erosita telefono
agenda opari!





S. CARRASCAL, S.L.

BERTAN EGINDAKO:

- SUKALDEKO ALTZARIAK
- HORMA-ARMAIRUAK
- BESTELAKO ARMAIRUAK

Ondo pasatu Gabon jaiak!

Gipuzkoa etorbidea 6 -1. pisua • N Tel. eta faxa: 943 79 01 82
Posta-e: scarrasc_1@infonegocio.com • ARRASATE



Goienkaria-k
hitzordua
egin nahi du
zurekin
ASTELEHENERO

Egubakoitzez gain,
astelehenetan ere badugu

- ✓ zer esan,
- ✓ zer erakutsi,
- ✓ zer proposatu.

Zure
astelehenak... gurekin
Goienkaria
ASTELEHENERO

Harpidedun izan nahi duzu?

- Asteleheneko Goienkariaren aleak kioskoan erositako baino %20 merkeago aterako zaizu.
- Asteleheneko Goienkaria etxean (edo zuk esandako tokian) jasoko duzu.

KIOSKOAN
ASTERO
0,80€

Goienkaria

25€

URTE OSOKO
HARPIDETZA

kioskoan baino
%20
merkeago

harpidetzak

merezi du... merezi dizu!

- Gainera, orain harpidetuz gero, zure herriko euskararen idatzitako ipuin liburua **DOAN!**



Nola harpidetu:

Ondoko harpidetza txartela zure datuekin bete, ebaki eta postaz bidali helbide honetara: **3FD Posta Kutxa. 20500 Arrasate. Gipuzkoa.**



902 36 38 51



943 79 22 93



astelehenekoa@goiena.com
www.goiena.net

HARPIDETZA TXARTELA

Izendeiturak: _____

Helbidea: _____ Tel.: _____

Herria: _____ Kode postala: _____

Posta elektronikoa: _____

Non jaso nahi duzu? Etxean Kioskoan

Beste nonbait* _____

Harpidedunaren kontu korronea (20 zenbaki):

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean

*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.

Mota askotariko animaliak egongo dira ikusgai Garibai etorbidean

Garibai etorbidea zaratatsua izango da, bai, Santamasetan. Han egongo dira eta ganadua eta inguruko baserrietatik ekarritako bestelako animaliak. Tartean, bi berritasun izango dira, iaz ekarri ez zituzten bi animalia mota; eta eguraldiak lagunduz gero, baita ezustekoren bat ere.

Azkenorduko ezustekorik izan ezean, Garibai etorbidean egongo dira Santamas azokara ekarriko dituzten animalietako batzuk (hegaztiak, ez). Antolatuzaileetako batek, Udalako Kabuena baserriko Aitor Murgoiatik, kontatu digunez, denetarik egongo da Garibain: behiak, ahuntzak, oreinak, *pony*-ak, astoak... Behiei dagokienez, Aitor Murgoiatik kontatu digu lau mota ekartzen ahaleginduko direla: pirenaiak, blondak, asturiarrak eta suitzarrak. Kanpoko izenak izan arren, behi guztiak gertu-gertukoak direla ziurtatu digute; esate baterako, Udala auzokoak bertakoak. Guztira, 30 buru inguru egongo dira.

BERRITASUN BI
Bestalde, ardien bi talde izango dira; 6-10 ardi talde bakoitzean. Ahuntzak eta astoak ere aipatu ditugu lehen; biak hala biak kumeekin ekarriko dituztela esan digute. Seguru gaztetxoak gustura asko ibiliko direla batazukitu eta bestearen gainean jarri nahian... Horrez gainera, pare bat berritasun iragarri dizkigute: euskal txerria, batetik; ahuntz nanoak, bestetik. Eta, era berean, ezustetxoren bat izango dela

ere iragarri digute antolatuzaileek, betiere, eguraldiak laguntzen badu.

INGURUKO IA LEKU GUZTIETATIK

Behiak izan ezik, animalia horiek guztiak ingurutik ekartzen ahalegindu direla esan digu Aitor Murgoiatik: Lasarte, Aretxabaleta, Zigorrola, Elorregi...

Eta, jakina, halako azoketan ohi denez, ikusteaz gain, erosi ere erosi ahal izango dira animaliak; baina, Aitor Murgoiatik esan digunez, salerosteko baino gehiago, ikusteko azoka izaten da Santamasetakoa.

Gogora ezazue, 10:00etan hasita, Garibai etorbidean askotari-ko animaliak ikusgai.


Ahuntzak eta ardiak ekarriko dituzte azokara, antxumeekin eta arkumeekin

Animalia guztiak ingurutik ekarritakoak izango dira; asko gertu-gertukoak



Lau behi mota ekarriko dituzte Garibai etorbidera Santamas azokan.

HEGAZTIAKBITERIN



ARRASATE PRESS

Hegazti mordoa Biteri etorbidean

Garibai etorbidetik Biteri etorbidera egiten duenak bestelako animaliekin egingo du topo han; hegaztiekin, hain zuzen ere. Han ipiniko dituzte eta txukun-txukun 60tik gora hegazti mota: oiloak, kapoiak, indioilarrak... Gutxi gorabehera iazko erakusketaren antzerakoa izango da. Eta, esan beharra dago ganaduekin eta ez bezala hegaztiak ez direla salgai egongo, erakusketa baino ez dela izango.

Zerbait aipatzearen, nabarmentzekoa da, adibidez, Tolosatik 40 hegazti ekarriko dituela Xabier Telleriak. Kontatu digunez, usoak ekarriko ditu, 20 motatakoak: erromatarrak, texan amerikarrak, Nuremberg-eko Bagadesak, arkanjeluak... Leku askotakoak: Frantzia, Italia, Amerika... Horrez gainera, esan digu akaso untxi nanoak ere ekarriko dituela. Bestalde, Urretxutik 18 hegazti ekarriko dituzte. Eta Arrasatetik bi lagun izango dira: Joxe Iturbe eta Felix Zubia. /U.M.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Urtiarzte

SPORT

Ondo pasau
Santamas jaixak!

Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE Tel.: 943 79 46 62

AREITIO kirolak

Ondo pasatu Santamasak eta Gabon jai zoriontsuak

Zarugalde, 35 Tel: 943 79 38 38

20.500 ARRASATE



Abenduaren 22an, Uarkapen eta Zaldibarren pilotari profesionalak eta herri kirolak

XABIER URZELAI

Abenduaren 22an Arrasateko bi pilotalekutan batuko da Santamasetako kirol eskaintzaren zati handiena. Batetik, Uarkapen esku pilota eta pala partiduak egongo dira ikusgai. Bestetik, Santamasetan ohikoak diren herri kirol probak jokatu dituzte Zaldibarren.

Horrez gain, baina, Gipuzkoako Xake Txapelketa lehenengoz jokatu da Arrasaten, eta abenduaren 22an hasiko da. Partidak Monterron jauregian jokatu dituzte, eta abenduaren 30ean izango da finala. Federatutako edozein xakelarik har dezake esku txapelketa, eta maila ertaineko xakelariak egoteaz gain, dagoneko FIDE maila duten hamar xakelarik eman dute izena; horien artean Iñigo Argandoña maisu donostiarra dago. Iazko txapelketa bi debagoiendarrek, Fran Miguelek eta Josu Tornayk, 2. eta 3. postuak lortu zituzten Donostian; eta, seguru aurten ere goialdean egongo direla.

Esan bezala, txapelketa abenduaren 22an hasiko da, eta abenduaren 30ean amaitu. Hori bai, abenduaren 24an eta 25ean ez dute partidarik jokatu.

PILOTARI PROFESIONALAK UARKAPEN

Azken urteotan pilota jaialdia Santamasetako baino asteburu bat lehenago antolatu badute ere, aurten Santamas egunean egongo da pilota ikusgai. Pilota jaialdi erakargarria antolatu dute, pilotari profesionalen arteko partidua egoteaz gain, pala partidua ere egongo da-eta. Joan den urtean ere Santamasetako jaialdiaren barruan pala partidua egon zen, eta Uarkapera hurbildutako pilotazaleek uste baino gehiago gozatu zuten pala partiduarekin.


Jaialdia pilotari profesionalen arteko partiduarekin hasiko da. Unanuek eta Peñagarikanok Asier Olaizolaren eta Otxandorenaren kontra jokatu dute. Olaizola anaietako zaharrena orain dela gutxi izan da Uarkapen, lau t'erdien barruan Titi-



*Santamas egunean
Gipuzkoako Xake
Txapelketa hasiko
dute Monterron
jauregian*

*Eguerdian
aizkolariek eta
harri-jasotzaileek
erakustaldia egingo
dute Zaldibarren*

*17:00etan, pilota
jaialdia Uarkapen:
eskuz binako
pilotariak eta pala
motzeko finalerdia*



Aurten, Inaxio Perurenak Aimar Irigoien izango du harria jasotzen lagun.

nen kontra jokatu zuenean, hain zuzen. Errioxarrak jipoi ederra eman zion nafarrari; hala, Asier bere benetako maila erakusteko asmoz etorriko da Arrasatera.

Lerro hauek idatzi ditugunean oraindik ez zegoen zehaztuta pala motzeko partiduan nortzuek jokatu dute. Ez da lagun arteko norgehiagoka soila izango:

Profesional Mailako Gabonetako Pala Txapelketako partidua izango da; finalerdietako bat, hain zuzen ere. Finalerdietako beste partidua Busturian jokatu dute. Ikusi egin beharko da azkenean nortzuk sailkatzen diren finalerdietara.

HERRI KIROLAK ZALDIBARREN

Aipatutako moduan, arratsalde partean Uarkapen punta-puntako ikuskizuna egongo da. Eguerdian partean, baina, Zaldibarko pilotalekuan Santamas jaiak girotu dituzten herri kirolak izango dira. Euskal Herriko punta-puntako aizkolaria eta harri-jasotzaileak izango dira gurean.

Aizkolariei dagokienez, bi maila izango dira: aizkolaria nagusiak eta aizkolaria gazteak. Aizkolaria nagusien mailan ez da aurkezpenik behar, Larretxea, Arrospide, Barberena eta Mugertza izango dira-eta Arrasaten. Lau aizkolaria horiek bi talde egingo dituzte: Gipuzkoa eta Nafarroa. Arrospide eta Mugertza lehiatuko dira Gipuzkoa ordezkatzen eta Larretxeak eta Barberenak ordezkatuko dute Nafarroa. Egin beharrekoa: kana-erdiko sei ebakitze eta 60 ontzako beste sei ebakitze.

Aizkolaria gazteak, berriz, oraindik ez dira ezagunak baina etorkizun polita daukatela erakutsi dute. Hain zuzen ere, 16 urteko Ugaitz Euskadiko txapeladuna, 18 urteko Rekondo txapeldunordea eta 15 urteko Aratz gaztea izango dira Zaldibarren. Hauek bakoitzak 45 ontzako sei ebakitze egin beharko ditu.

HARRI-JASOTZAILE EZAGUNAK

Gazteak izan arren, Mondragoen izango diren harri-jasotzaileak aski ezagunak dira: Inaxio Perurena eta Aimar Irigoien. Eurekin batera, horren gaztea ez den baina oraindik ere ezaguna den harri-jasotzailea ere izango da: Iñaki Perurena, hain zuzen ere. Hiru horien esku egongo da herri proben azken txanpa girotzeko ardura. Perurena aita-semeak sei harrirekin jardungo dute; Aimarrek, berriz, hiru harrirekin egingo du erakustaldia.

Izan zoriontsu 2004. urtean !!!

LEINTZ GARRAIOAK S.L

230 Postakutxa - San Andres Auzoa 10 D

20500 ARRASATE

Tel : 943 71 27 07 / Faxes : 943 71 17 69

e-maila : leintzgarraioak@leintz.com www.leintz.com

Santamasetan girorik onena

BEATIZEN

ORDUTEGIA:

03:00-10:00

jarraitu festa geurean!

Bertize
Azeri kalea 7- ARRASATE



Eskulangintza tradizionala erakustera etorriko dira artisauak

Santamasak euskal tradizioan oinarritutako jaiak dira, eta horretarako aspaldiko langintzak ere kontuan hartu behar ditugu. Urtero moduan, Santamas egunean hainbat herritako artisauak etorriko dira herrira. Jokin Zaitegi plazan euren ekoizpenak erakutsiko dituzte.

Urtero hainbat artisau ekartzen dituzte Arrasatera. Jokin Zaitegi plazan ipintzen dituzte saltokiak eta jende mordoa joaten da horien lanak ikustera, zelan lan egiten duten ikustera eta, batzuetan, ekoizpen horiek erostera.

Udaleko ordezkariak jakinarazitakoaren arabera, lagun askok eman zuten izena Jokin Zaitegi plazan egiten duten azokan esku hartzeko. 34 artisau etorriko dira. Iaz ere beste horrenbeste artisau etorri ziren.

Euskal Herriko leku askotatik etorriko dira. Asko ibarrekoak dira, eta Arrasatekoak ere badaude, jakina: Loixe taldeko Olatz Bartolome; Imanol Aranburu, zeramika eta grabatua; Idoia Ibañez, tapizak, larrua eta ehoziak; Jesus Gruzeta eta Inma Delgado, bitxigintza; Arrasateko Tailaginen Elkarte; Felix Barcina, ezpela; eta Amaia Otadui eta Maider Altzelai, larrugintza eta kakorratza.

ERAKUSKETA ETA SALTOKI IKUSGARRIA
Ibarrekoen artean, gehienak eskoziarrak, oñatiarrak eta bergararrak dira. Oro har, aurten etorriko direnak iraganean egonak dira azoka horretan.

Artisau horietako askok egunean bertan Jokin Zaitegi plaza-

ko saltokian lan egingo dute. Berañ, gura duenak artisauen langintzak hobeto ezagutu ahal izango ditu. Eta denetik egongo da ikusteko: zeramika, panpinak, zura, argizaria, burdina, buztina, lore lehorrak, oinetakoak, turroia, eta beste asko.

Abenduaren 22an izango da, Santamas egunean. 09:00etarako artisauak saltokietan egongo dira,

eta 15:00etan itxiko dituzte. Bada denbora nahikoa ekoizpen horiek ikusi eta, gura izanez gero, erosketak egiteko.

Tradizioari eutsi gura badiogu, halako langintzak egiten dituztenei babes eman beharko diegu. Horien lana barik, ez litzateke posible izango usadio eta eskulangintza horiek bere horretan jarraitzea.

34 artisauk ipiniko dituzte saltokiak, eta euren azken ekoizpenak erakutsiko dizkigute

Jokin Zaitegi plazan hainbat artisauk zelan lan egiten duten ikusi ahal izango dugu



Besteak beste, Arrasateko lagunek esku hartuko dute azoka horretan.

UMEENTXOKOA



ANDER GILLENIA

Artzainen usadioak, umeendako jolasak

Santamas egunean Artzainen Joka eta Jolasen Jaia antolatu dute Laubide plazan. 12:00etan izango da, eta 3 eta 12 urte bitarteko umeei eta gaztetxoei dago zuzenduta.

Parte-hartzaileek, ondo pasatzeaz gain, artzainen eta mendiko lanen hainbat arlo ezagutu, praktikatu eta baloratu ahal izango dituzte. Jai hori Kulki izeneko taldearen eskutik ekarri dute Arrasatera. Kulkiren helburua da euskal kulturako arlo ludikoa ezagutzera ematea.

Besteak beste, gaztetxoek halako probak egin beharko dituzte: esneontzi erutea, botxak, txalaparta jotzea, harri-jasotzea, kalika, pilota, zakulari lana egitea, ahari xirrista, artzain jokia, astoan ibili beharko dute, gizon proba egin beharko dute, ardi mugikorren gainean ibili beharko dute eta trontzak ere egin beharko dituzte. Bide batez, ume eta gaztetxoek usadioak berreskuratuko dituzte eta jolastu egingo dute. //B.



Olarte kalea 20 **Ondo pasatu Santamasak eta urte berri on!**
ARRASATE



ANBOTO

Ondo pasatu Santamasak!

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 ARRASATE
Tel.: 943 79 20 48 / 943 77 14 11
arrasate@infonegocio.com
www.inmoarrasate.com




Ondo pasatu Santamasak!

Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

IZADI BELAR DENDA

Elikadura biologikoa
Dietetika gehigarriak
Sendabelarrak
Kosmetika naturala

Seber Altube 8.
Tel.: 943 79 75 79
Kontzezino 8.
Tel.: 943 79 03 56
Arrasate



Altzariak eta dekorazioa

Ondo pasatu Santamasak eta Gabonak!

Ferrerias, 17 Tel. eta faxa: 943 79 03 17



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko abenduaren 19a / 90. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aramaion egongo da zer egin Gabon garaian

U.M.

Gabonetako egitarau luzea eta zabala prestatu du Udalak. Astelehenean, hilak 20, hasi eta urtarrilaren 4ra arte adin eta gustu guztiendako ekitaldiak izango dira herrian.

Hasteko, bihar, zapatua saridun filmekin zinema-saioak ematen hasiko dira, ilunkeran. Hurrengo filma abenduaren 27an emanango dute; eta azkena urtarrilaren 2an, hain zuzen ere.

Berriz, umeei zuzendutako egitaraua kontuan hartzen badugu, lantegiak izango dituzte umek astelehenean, hilak 22. 11:00etan hasi eta 13:30ak arte eskumuturrekoak, lepokoak... egingo dituzte 3tik 6 urtera artekoek. 6tik aurrerakoek, horrez guztiaz gain, *henna* erabili ahal izango dute.

Bestalde, abenduaren 23an, Rosa Maria Martinez ipuin-kontalaria izango da liburutegian. *Ilargiaren lapurra* ipuina kontatuko du. 11:00etatik 12:00etara 6 urtetik aurrerakoentzako; eta 12:00etatik 13:00etara 3tik 6 urtera artekoentzako.

Eta, bukatzeko, abenduaren 26an, txikienek puzgarriak izango dituzte; pilotalekuan egongo dira, goizean, 11:00etan hasi eta



Gabon kantak entzun eta gero, umeen gutunak batzen hasiko da Olentzero.

14:00ak arte.

OLENTZERO ETORRIKO DA

Horrez gainera, Olentzerok abisatu dio Udalari abenduaren 24an ilunkeran iritsiko dela kiroldegira, eta zain izango dituen umekin plazara joango

dela, kalejiran. Bizente Goikoe-txea abesbatza eta Papargorri Haurkantariak zain izango ditu. Gabon kantak abestuko dituzte. Arkupean danbolinean herritarrendako gaztainak prestatuko dituzte. Ardoa eta sagardoa ere banatuko dute.

HERRITARRENHITZA / Arantza Ibabe • Langilea

Porlanean burbuila

Honezkerok debagoiendar askok bisitatuko zenuten Gasteizen hilabete pasatxo zabaldu barri den mole erraldoia; kontsumismo zatarrenaren lekuko bera. Badirudi debalde ematen dutela guztia. Baina ez, erositakoa ondo ordainduta bueltatzen da jendea etxera

Jendeak jendea erakartzen du. Dudarik ez dago. Pena da hirietako kaleak husten ari direla, eta horrelakoak betetzen. Hain ederrak diren kaleak husten, hain inpersonalak diren kontsumo lekuak betetzen. Eurria, elurra, eguzkia, beroa, hotza, haizea dabilen kaleak husten, beti

temperatura bere-tua eta zein eguraldi egiten duen ere jakiterik ez dagoen leku hotz horiek betetzen.

Ez dakit erosotasunaren bidea aukeratu dugun edota goitik inposatutako bizimoduaren bidea jarraitzen. Argi dago *american way of life*-a gurera ere etorri dela.

Iraken kontrako inbasioaren aurka agertu ginen gogor pasaden neguan. Haatik, hain gaurkoak diren porlanean burbuilak ere, beste gauza



"Orain kalean ez dago asmatzerik zein den zein"

jabeak betikoak, langileak herri xumea.

Beste garai batzuetan, nobleak, burgesak, langileak... zeuden. Orain izenak aldatu

batzuen artean, zuzenean Ameriketako Estatu Batuetatik jaurtitako balak dira, eta kalte egitera datoz.

Jakina, horrelako merkatal zentron benetako jabetza gutxi batzuk besterik ez dute. Betikoek. Eta betiko legez historia errepikatu egiten da. Behin eta berriro. Diruaren

egin dira, baina egoera ez. Formak aldatu dira, fondoak ordea, ez. Okerrena klase kontzientzia galdu egin dugula da. Orain kalean ez dago asmatzerik zein den zein. Langile xumeok ere aberatsek erosten dituzten gauza, marka eta arropa berak erosten baititugu. Berdin da gure eskubideak zapaltzen badituzte ere. Hor konpon. Izan ere, burbuila baten egoteak, bai porlanean izan, bai itxurariaren forma eduki, baita edonolako forma edukita ere, hori dakar; burbuilatik kanpo besterik dagoenik ikusten uzten ez digutela.

Urte Barri On

LABUR

San Martin eskolako umek ekitaldi bereziak egin dituzte Gabon ospatzeko

Eskolan jai-giroa izan da nagusi oraingo astean. Batetik, oporrak gertu-gertu zituztelako, jakina; baina, bestetik, eta Gabonak datozela-eta, ekitaldi bereziak izan dituztelako. Hasteko, eguaztenean kantu lehiaketa batean parte hartu dute, Alava 7 izeneko telebistari. Ez dugu jakiterik izan zein lekutan geratu diren, albisteak idaztean lehiaketa egin barik zegoelako.

Horrez gainera, ekimen berezia antolatu dute astean: antzinako sukaldeetako trasteak batu, eta eskolako liburutegian halako sukalde bat muntatu dute. Gero, herriko zenbait pertsona nagusi antzinako sukaldeen gainean berba egitera joan zaizkie. Modu horretan, antzinako ohiturak ikasteaz gain, Aramaioko euskara garbia entzun ahal izan dute pertsona nagusien ahotan. Baina, duda barik gaur goiza izan da umeendako egunik handiena. Izan ere, Olentzeroren bisita izan dute eta txistorra jan dute. Edozelan ere, arratsaldean ez dute aspertzeko astirik izan. 14:00etatik 16:00etara Gabon jaialdia ospatzen ibili dira-eta.

Liburutegia eta ludoteka Gabonetako ekitaldietarako zabalduko dituzte bakarrik

Kultura etxeko arduradunek jakinarazi digutenez, datorren martitzenera arte, abenduaren 23a, betiko ordutegian jardungo dute lanean liburutegian. Ludotekan, berriz, gaur izan dute azkeneko eguna. Izan ere, batean zein bestean oporretan egongo dira urtarrilaren 7ra arte. Edozelan ere, Gabonetako egitaraua aurrez ikusita dauden ekitaldietarako zabaldu egingo dituzte biak.

Gabon garaiko zenbait egunetan oporrak izango dituzte Udaleko langileek

Aramaioko Udalekoek jakinarazi digutenez, Udalak oporrak izango ditu Gabon garaian. Hala, astelehenean eta martitzenera (abenduaren 22 eta 23) lanean jardungo dute; baita 29an eta 30ean ere. Gainerako egunetan jai izango dute, urtarrilaren 7ra arte.

LABUR

Bertso-saioa egingo dute urtarrilaren 4an

Azken urteotan ohitura bihurtu da Gabonetan bertso-saioa egitea Aramaion. Aurten ere ez du kalerik egingo saio txiki horrek. Eta urtarrilaren 4an egingo dute. 19:00etan hasiko da, kultura etxean. Eta etxeko zein kanpoko bertsolariak jardungo dute nor baino nor gehiago. Duda barik bertsozaleak pozik egingo dira, Angel Mari Peñagarikano, Jexus Mari Irazu, Fredi Paia eta Iker Agirre bertsolariak etorriko dira-eta. Eta Manex Agirre aramaiarra ibiliko da gai-jartzaile lanak egiten.

LABUR

Presoen aldeko ekimenak egingo dituzte Eguberrian

Aramaioko presoen aldeko lagunek antolatuta presoen aldeko ekitaldiak izango dira Gabon sasoiari. Hala, abenduaren 24an, eta urterot moduan, herriko auzo guztietatik ibiliko dira presoen alde dirua batzen. Hain justu, trikitilariak eta bertsolariak lagundutako auto-karabana egingo dute. Goizean aterako dira kiroldegitik, 09:00etan.

Hurrengo egunean, Gabon egunean, kale bilkura egingo dute, 12:30ean, biribilean.

Horrez gainera, abenduaren 26an beste kale bilkura bat egingo dute. Kasu honetan, Etxerat-ek deitu du, hori hileko azkeneko barikua izango delako.

Eta, bukatzeko, abenduaren 27an eta 28an argazki erakusketa ipiniko dute. Tortura eta halako gaiak landuko dituzte. Edozelan ere, albiste idaztean oraindik zehaztu barik zuten non ipini ahal izango duten erakusketa.

Aramaiotik kanpora joateko aukera izango dute umeek

UBANE MADERA

Aramaion izango dituzten ekitaldiez gain, umeek kanpora irteteko aukera izango dute Gabonetan. Duranaren, Bilboren edo Arrasateren artean aukera dezakete. Duranaren Euskararen Eguna izango da eta beste bietan, Gabonetako parkeak.

Zuiako koadrilak antolatuta, abenduaren 29an Haurren Euskararen Eguna ospatuko dute Duranan. 10:00etan, pailazoak izango dira; eta 11:15etik 14:15era bitartean, puzgarriak jolasteko eta lantegiak eskulanak-eta egiteko. Parte hartu gura duenak liburategian eman beharko du izena. Autobusa pilotalekutik aterako da, 09:30ean, eta Dura-


natik 14:15ean itzuliko dira umeak Aramaiora.

BILBOKO GABONETAKO PARKEA

Horrez gainera, hurrengo egunean, hilak 30, Bilboko Umeen Gabonetako Parkera joan ahal izango dira. Nahi duenak liburategian edo udaletxean eman dezake izena, abenduaren 23a baino lehen. Esan beharra dago 6 urte baino gutxiago duten umeek pertsona nagusi batekin batera eman beharko dutela izena. Eta 15 lagun baino gutxiagok ematen badute izena, bidaiari bertan behera geratuko dela. 4,50 euro kostako da bidaiari (autobusean bertan ordaindu beharra dago). Autobusa 09:00etan aterako da pilotalekutik, eta 13:30ean itzuliko da Bilbotik.

ARRASATEN TXIKILANDIA

Bukatzeko, Arrasateko Txikilandia parke erraldoira joateko aukera ere izango dute. Doan, gainera. Aurreneko autobusa 11:15ean aterako da eta 20:10ean izango da bueltarako azkena. Txatxilipurdi elkarteak antolatu du Txikilandia parkea.



Parke erraldoia ipini ohi du Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak: Txikilandia.

BOTEPRONTOAN/ Jose Lonbide · Santamasetan saltzaile

“Santamasetako azoka ondo dagoela uste dut, giro oso ona dago eta denetarik eros daiteke”

Santamasak dira Arrasaten. Besteak beste, fruta eta barazki azoka izango da. Eta han izango du saltokia Jose Lonbidek. Akaso askok ez duzue ezagutuko. Izan ere, joan den udaberritik bizi da Aramaion. Aretxabaletan bizi izan da ordura arte. Kontuak kontu, Aramaiokoa balitz moduan aurkeztuko da aurtengo Santamasetan. Eta guk gehiago jakin nahi izan dugu:

Zelako produktuak izango dituzu zuk?

Produktu ekologikoak. Barazki mota guztiak (azaloreak, brokoliak, porruak, azak, letxuga gorria...), frutak eta arrautzak.


Asko saltzen da halakoetan?

Orain bai. Lehen ez, azoka txikian egoten ginenean gutxiago saltzen zen, han ez zegoen jendea ibiltzeko lekurik. Edozelan ere, bestetan produktu ekologikoak probatu dituenek erosi egiten dituzte.

Hortaz, produktu ekologikoak garestiago izateak ez dauka eraginik dagoeneko?

Prezioan oso alde gutxi dago. Zuzeneko salmentan, behintzat. Dendetan-eta akaso gehiago igartzen da hori.

Uste duzu orain jendeak kezka handiagoa erakusten duela



“Amak ortua zeukan etxean eta pozoinak bota barik lantzen genituen produktu guztiak”

jakiekiko?

Bai. Osasunarengatik geroago eta gehiago kezkatzen dira. Ni, adibidez, ia sekula ez noa medikuarengana. Esaterako, katarroa baldin badaukat berakatz-atala jaten dut eta kito. Noiztik zabilta produktu ekologikoak lantzen?

Betidanik. Amak ortua zeukan etxean eta pozoiak bota barik lantzen genituen produktu guztiak.

Non zeneukaten ortua?

Lehen Aretxabaletan. Orain Ermuan. Astebururo joaten naiz hara. Baina, Aramaion nabil leku baten bila, erosteko asmoarekin. 8.000 metro koadroko lekua da, fruta-arbolendako eta barazkiendako beharrezkoa da leku handia izatea.

Zeuk bakarrik lantzen duzu guztia?

“Ortua lantzeaz gain, eskolak ematen diet Aretxabaletako umei”

Laguntza ere izaten dut noiz edo noiz. Eta ortua lantzeaz gain, eskolak ematen diet Aretxabaletako umei. Ortu dugu han eta lantzen erakusten diet.

Aramaioko lurra ona da lantzeko?

Bai, Ermukoa baino askoz epelagoa da.

Bestelako azoketara joaten zara?

Bai, Zumarragara, adibidez. Santamasetako lehiaketan parte hartzen duzu? Irabazi duzu?

Parte hartu izan dut, eta behin baino gehiagotan irabazi dut. Dena dela, esan beharra daukat Santamasetan egoten direla nork bere produktua landu barik, beste nonbaiten erosi eta saltzen ipintzen dutenak. Horren ondorioz, dezente garestitzen dira produktuak eta horrexegatik askotan ematen du oso garestiak direla. Edozelan ere, azoka ondo dago; giro ona dago, eta denetarik eros daiteke. Ibarrean badaude gehiago produktu ekologikoak lantzen?

Antzuolan, Larrañaga dago, adibidez. Ez da askoz gehiago egongo.

Uste duzu zabaltzen doazela ohitura ekologikoak?

Gazteen artean bai, bestela ez.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
19:00	19:15	
19:30	19:45	20:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	19:15*	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute.

Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezeroan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKO TALDEEN EMAITZAK

Golak ez dira falta izaten Bañerako partiduetan. Eta joan den asteburuan ere hala izan zen. Mutilek 11-0 irabazi zuten Jesus Obreroren kontra; eta neskek galdu egin zuten 6-3 Francisco de Vitoriaren kontra. Datorren asteburuan neskek kanpoan jokatu dute, eta mutilek seguru aski, atzeratuta duten partidua jokatu dute. Gero, Gabonak direla-eta, urtarrilaren 10era arte atseden izango dute bi taldeek.

ANBULATORIOKO ORDUTEGIA

Abenduaren 24an eta 31n medikuaren kontsulta eta erizainaren zerbitzua itxita egongo dira. Hortaz, larrialdietarako 08:00etatik 17:00etara Arrasateko ambulatoriora joan beharra dago; eta 17:00etatik aurrera, Eskualde Ospitalera (943 03 53 00).

TAMAINA HANDIKO ZABORRAK

Hileko azkeneko barikua 26a dela-eta, jai-egunak kontuan izanda, egun horretan barik, abenduaren 24an batuko dute tamaina handiko zaborra.

ERRETRATUZAHARRA

Orain dela urte batzuetako Santamasak

Santamas jaiak izanda, ezin bestela izan eta antzinako argazkiaren tardean jaietako kontuak izango ditugu berba-gai. Gure berriemaileak kontatu digu orain dela 12 bat urte ateratako argazkia dela irudiotakoa, beraz, 1991koa. Gogoratzen du ikusten dabilzan postua txotxongilo modukoa zela, jaiotza irudikatzen.

Honako hauek agertzen dira argazkian: emakumeen artean, ezker-ezkerrean (kamerari begira) Elisabete Amozarrain dago; erdian nabarmentzen dena Sara Sagasta da; betaurrekoduna (aurpegia ondo ikusten zaiona) Arantza Sagasta da eta haren ondoan dagoena, berriz, Rosalina Garai. Bestalde, Rosalinaren ondoan dagoen gaztetxoa akaso ezaguna egingo zaizue, sasoi batean ATBn lanean ibili zen-eta. Naiara Gorroñoitia da.

Umeei dagokienez, berriz, argazkiaren erdiko aldean dagoen neskatila, buruan zapia duena. Eider Zubizarreta da; aurrean duen neskatoa Miren Zubizarreta ahizpa da, txotxongiloa-



ren txapelak aurpegia estaltzen dio. Gero, argazkiaren eskuinaldean dagoen neskatoa (zapiduna) Idurre Aranguren da, eta haren ondoko mutikoa Unai Aranguren.

Kontatu digutenez, azken urteotan Santamasak apur bat aldatu dira. Lehen, familiarrean ospatzeko jaiak

izaten ziren, Gabonak moduan. Are gehiago, Gabonetan etortzen ez ziren senide askok Santamasak aprobetxatzen zituzten familiarekin elkartzeko. Orain, berriz, masifikatuago daudela uste du gure berriemaileak. Era berean, kontatu digu antzina-antzina Ferixalekuan ipintzen zutela Santama-

setako ganadu azoka; eta azokan *Verduring Dancing*-en- frutak eta barazkiak.

Argazkia: ARRASATE PRESS
Informazioa: Sara Sagasta
Urtea: 1991. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Kirol Eguna Iturripen, Santamasetan

1988ko Santamasetan, lehenengo Kirol Eguna egin zuten Iturripen. Jaietan ere kirolak protagonismoa izan zezan, pilotako, eskubaloiko, errugbiko eta atletismoko taldeek kirol ekitaldi berezia antolatu zuten Santamas egunerako. Goizeko hamarretan hasi ziren probak, eta mondragoetarrek kirol horiekin guztiekin gozatu zuten egun hartan.



≈ 1988 Iturripen asko aldatu da azken hamabost urteotan. MUK hainbat eraikin egin ditu eta kirolgunea egokitu egin dute.



2003 Iturripen aldatu ez den gauza bakarra pilotalekua da. Hainbat kantxa egin zituzten, baita estatutako kirolgunea ere.

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA

Jai goxo-goxoak izateko

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34



Naroki

Mondragon Unibertsitateko ikas liburuak
Eskolako materiala
Betizu-ren opariak salgai
Karrodun motxilak
Portzelanazko panpinak
Jolas didaktikoak...

Erdiko kalea 23
Tel.: 943 79 20 47
Arrasate

Samsone

HIRE

BIDAIARAKO ETA NARRUZKO ARTIKULOAK
Iturriotz, 4 • Tel./Faxa: 943 79 14 84

LIBURU ETA PAPERDENDA

Etxean

Etxetar



Etxezale

Etxekoi

Etxelagun

Gabonetan ere *Ehune zurekin*

Ehune

Apainketa

Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

CDTI 3.0 Vectra Berria.
Common Rail Diesel Turbo Inyección



Opel. Nuevas ideas. Mejores coches.

Diesel Teknologia potentziarik handiengan



16.760 €-tik Vectra bat duzu.*

CDTI 3.0 Vectra Berria 177 zaldi dituenak, Diesel Common Rail Turbo Inyección potentzia eskaintzen dizu. Mailarik altuena emateko pentsatutako kotxea, kontsumo minimoarekin. Vectra bat teknologia diesel onenarekin

*Penintsula eta Balearretan Fabrikatzaileak gomendatutako prezioa, hilabetea bukatu arte, Vectra Essentia 1,8 5 balbuladun modeloan. BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, inportazio gastuak, osagarrien kit-a, promozio deskontua eta Plan Prever berunik gabeko gasolina erabiltzen duten kotxeetan. Argazkiko modeloa ez da eskaintzan ematen den modeloa. Vectra gama: kontsumoa (l/100km) misota 5,6tik 10,4ra. CO2 (gr/km) igorpena 151tik 250ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**

www.giauto.es